

uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Iraurgik
saskibaloirako
proiektu
garrantzitsua (3-5)



huy

Hilabetekaria • 2004ko otsaila • VI. urtea • 48. zenbakia • www.uztarria.com



Otsailaren 20an sortuko da 'Urola-Kostako Hitza' egunkaria (22-25)

MATRIKULAZIO KANPAINA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH
otsailaren 16tik 27ra



AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI



HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

Euskalerrria, 50

Tel.: 943 81 26 97

Faxa: 943 15 08 30



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI



DBH, BATXILLERGOAK ETA HEZIKETA ZIKLOAK

Perdillegi, 2

Tel.: 943 15 02 28

Faxa: 943 81 16 94

Perdillegi, 3

Tel.: 943 81 26 65

Faxa: 943 81 66 20

DBH: azpeitia@urola.org

BATXILLERGOAK

- Natur eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Merkataritza
- Arotzerien eta altzarien fabrikazio industrialia
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Informatika sistemen administrazioa
- Zur eta altzari produkzioa
- Administrazio eta finantzak

IRAKASKUNTZA URTE 1ETIK 20 URTERA
kalitatea zure zerbitzura



*DBHOn




IXIAR SAN JUAN

L.S

ESTETIKA ZERBITZUA

Loiolabide 19, behea

943 81 02 17



ONDO PASA KARNABALAK!

ODONTOLOGI
OROKORRA

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa



ODONTOLOGI
ESTETIKOA

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hortz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorak
- > Odontologi tratamendu integralak

15 URTE ZUEN ZERBITZURA!

Elkarrizketa.
'Keutin',
karnabaletan
mozorrotuta
(18-19)

Unai
Frantzesena,
Kepa
Junkeraren
ikasle(26-27)



Klik!
Sokamuturra.
Zezenak
kamioira
(36-38)



Hi heu!
Mikel Luengo
suhiltzailea
(42)

uztarria

Iraurgi Saskibaloi Elkartek kirol-proiektu ekonomikoa du; teknifikazio eskola, Saskiratzen Elkarte berria, taberna eta webgunea ditu ardatz

AURRERA BEGIRAKO KIROL PROIEKTU OPAROA



Iraurgiko teknifikazio eskolako jokalariai kiroldegian. / ION ARANBURU

Nerea Uranga

Iraurgi Saskibaloi Elkartek Azkoitia eta Azpeitirako kirol-proiektu ekonomikoa aurkeztu zuen Soreasun, urtarrilaren 14an. Iraurgiko jokalaria ohiak, Iraurgirekin lotura izan dutenak, gaur egungo jokalariai, umeak, helduak eta gazteak bildu ziren herriko zine aretoan. Saskibaloia eta aurrera begirako asmoak bildu zituzten denak.

Aurkezpen lanetan Iraurgi Saskibaloi Elkarteko lehendakaria, Jose Luis Zubizarreta *Xubi* aritu zen; hari laguntzen, mahaiaren inguruan, hauek: Luis Oyono (Iraugin sei urtez jokatu zuen), Lolo Encinas (Iraurgiko Lehen Mailako taldeko entrenatzailea), German Cea (Gipuzkoako Saskibaloi Federazioko arduradun teknikoa), Maixol Rezola (Iraurgiko jokalaria ohi eta iaz alebiren entrenatzaile lanetan ibili zen), Ana Eizagirre (Urolako eskualdean saskibaloiko jokalaria batek izan duen kurrikulumik onenetakoa du; inoiz ez du Iraugin jokatu), Ramon Aranburu (Iraurgiko entrenatzaile izana urtebetez, eta taldearekin harreman estua dauka) eta Joxemi Etxaniz (Iraurgi Saskibaloi Elkarteko zuzendartzaile kidea eta jokalaria ohi). Horiek ekitaldiaren amaieran »

» hartu zuten hitza, proiektuaren balorazioa egiteko. Denak ere proiektu "on" bezala definitu zuten.

LAU DATA. Xubik, Iraurgi Saskibaloi Elkartearen kirol-proiektu ekonomikoa aurkeztu hasi baino lehen, lau data azpimarratu zituen:

- 2000ko uztaila: "Iraurgi Saskibaloi Elkartea desagertzeko bilera antolatuta genuen. Nekatuta geunden".

- 2001eko iraila: "Tau-Zalgoris partida jokatu zen Azpeitian. Lan asko eginarazi zigun".

- 2002ko uztaila: "25. urteurrena. Iraurgi Saskibaloi Elkartea liburua aurkeztu genuen".

- 2004ko urtarrila, aurkezpen eguna bera: "Lehen aldiz bildu gara bilera bat egiteko Soreasun. Gure kirol-proiektu ekonomikoa aurkeztera etorri gara".

TEKNIFIKAZIO ESKOLA.

Bi urtean ari da Iraurgi Saskibaloi Elkartea teknifikazio eskolarekin; 8-12 urte bitarteko 137 jokalariditu. Jokalariak ordaindu egiten dute eskolak jasotzeagatik. Iaz, gainera, udako egonaldia ere antolatu zituzten; Hondarribiko kanpusera joan ziren 67 jokalariditu. Hainbat txapelketatan ere hartu dute parte.

Kirol teknifikazio eskolaren helburua "nahi duen guztiak saskibaloian jokatzeko aukera izatea" dela azaldu zuten Iraur-gikoek, "eskola kirolari oztoporik egin gabe". Era guztietako kirolak egitearen aldekoak direla adierazi zuten. "Gaztetxo bakoitzak aukeratu du zein kirol egin, baina entrenatzaile bat topatzeko zailtasunak daude, eta ikastetxeetan gehiago".

Infantiletan iaz bost talde zeuden eta orain zortzi; neskatan, berriz, 11. "Azkoitiko eta Azpeitiko kirol-proiektua da hau, eta saskibaloian jokatu nahi duten guztiek, jokalariditu ona edo txarra izan, jolasteko aukera izateko eskola da".

SASKIRATZEN. Orain arte Iraurgi Saskibaloi Elkartean "lagunartean" lanean aritu direla azaldu zuen Xubik: "Seriotasun baten barruan, gauzak aurrera

eramaten aritu gara". Baina teknifikazio eskola martxan jarri zutenetik kirol egitura asko hazi da Iraur-gin. "Gaur egun teknifikazio eskolan dabilten talde batzuk gero talde federatua eskatuko dute —gaur egun bost daukagu—. Horrek egitura bat eskatzen du. Hausnartu ostean, gai fiskalengatik eta batik bat gardentasunagatik, Iraur-giri beste izaera bat ematea erabaki dugu". Egitura sendotze alderira, irabazi asmorik gabeko Saskiratzen Elkartea sortu dute. "Elkartea izan ditzakeen irabazi guztiak saskibaloian inbertitzeko izango dira. Elkartearen helburua Iraur-girentzako dirua lortzea da: jokalariditu federatuentzat eta teknifikazio eskolako taldeentzat".

Elkartearen finantziario bideak ere aztertu dituzte: hiru enpresa sortzea, publizitatea, babesleak eta bazkidetza.

Hiru enpresa horietako bat taberna izango da, baina beste bien berri ez zuten eman, "oraindik labean dauden beste bi enpresa direlako".

Dirua lortzeko beste iturri bat publizitatea da: kiroldegian kartela jartzen duten 26 etxe dituzte, eta gaur egun beste bost batekin hizketan ari dira. "El Diario Vasco-rekin ere akordio bat egin dugu; guk bideratuta lortzen dugun publizitatea Iraur-gik kobratuko du". Taldeen babesle indartsuagoak edota diru gehiago emango dutenak lortzeko asmoa ere badu Iraur-gik.

Bazkidetza ere Saskiratzen-en finantziario bide izango da. Behin, ehun euroko kuota ordaindu beharko da bazkide egiteko. "Bazkideek batzar nagusietan parte hartzeko aukera

nola egin bazkide?

- **100 EURO.** Saskiratzen Elkarteko bazkide egiteko behin ordaindu behar da kuota; ehun eurokoa. Kutzako 2101 0029 22 0011429875 kontu korronte zenbakian sartu behar dira.

- **DATUAK.** Behin kuota ordainduta, ordainagiria eta datuak Kemen Aholkularitzan entregatu behar dira (Pastorkua jabetxearen gainean dago).



izango dute, baita elkartearen sarrera-irteera eta aurrekontuen berri izateko ere. Erabaki garrantzitsuetan bazkideen babesa eta onarpena beharko du elkartea. Horrela "gardentasunez" lanean jardutea bilatzen dela azaldu zuten.

TABERNA. Iaz, maiatzean, hasi ziren saskibaloizaleak tabernaren kontuarekin lanean. "Orain dela 18 bat urte ere taberna hartzearen ideia izan genuen: Pikua taberna, Fernando Bereziartuak utzi zuenean. Baina ez genion heldu gaiari".

Lekua aukeratu dute: Hartzua eta Pablo VI.a artean hartu dute lokala, Ildefonso Gurrutxaga kalean (Patxo jatetxetik gertu). 216 metro koadro dituen lokalak eta tabernaz gain egoitza ere han izango dute saskibaloizaleek. Ekainerako lanak

bukatuta eta irekitzeko prest izatea espero dute.

Horretarako aurrekontua 661-721 mila euro artekoa da eta dagoeneko 420 mila euro lortu dituztela esan zuten Soreasuko aurkezpenean. "Jende batek dezente diru jarri du; horregatik, gardentasunez jokatu behar dugu". Herritarrek Saskiratzeneko bazkide egitera animatu dituzte, proiektua aurrera ateratzeko "dirua behar" delako.

WEBGUNEA. Iraur-gik webgune berria ere aurkeztu zuen Soreasun: www.iraurgisb.com. Donostiako lagun batek lagundu omen die webgunea egiten. Iraur-giko talde guztiak daude, saikakapenak, datozen partidak, emaitzak eta abar. Saskibaloizaren inguruko albisteak ere sartzen dituzte askotan. Iraur-giren historiari lotutako atalak ere baditu: *Historia* atala eta *25. urteurrena* gogoan duen atala. *Historia* atalean garai bateko argazkiak eta kontuak sartuko dituzte. Atal horrekin lotuta, dei bat ere egin zen aurkezpenean: "Etxean norbaitek argazkiren bat edukiko balu Iraur-girekin lotutakoa, bidal dezala". *25. urteurrena* atalak www.uztarria.com-ekin lotura du, eta *Iraurgi Elkartearen 25. urteurrena* liburua osorik irakurtzeko aukera dago.

Webgunean jendeak ere parte har dezake; *foroa* atala dago, eta hor eztabaida desberdinetan erantzuteko aukera. "Ilusio handiarekin" egindako orrialdea dela azaldu zuten, eta euskara aukeratu dutela webgunerako hizkuntza.

Kirol-proiektu oparoa, beraz, Iraur-gik aurkeztu berri duena.



Iraur-giren kirol-proiektu ekonomikoa aurkezpeko irudia. / NEREA URANGA



Jende asko bildu zen Soreasun.

German Cea

(Gipuzkoako Federazioko kidea)



"Ilusioarekin eta bide onetik doa Iraurgi.

Iraurgiren proiektua datozen urteetan Gipuzkoan egongo den proiektu garrantzitsua izango da, hala uste dugu guk. Iraurrik bide ona hartu du, eta jendea ilusioarekin ikusten da".

Luis Oyono

(Iraurrik jokalaria ohia)



"Iraurgiren proiektua babestu behar da.

Oso klub gutxi izango dute hain proiektu anbiziotsua; lanean ari direnek babesa behar dute".

Ana Eizagirre

(saskibaloiko jokalaria ohia)



"Iraurgiren proiektua oso interesgarria da.

Eta, benetan, gurasoei seme-alabak kirola egitera animatzeko esango nieke".

Maixol Rezola

(Iraurrik jokalaria ohia)



"Neskatan saskibaloia behe-ekin duela ikusten dut.

Neskak animatuko nituzke saskibaloian jokatzera, eta nesken saskibaloia indartzeko ahaleginak egiteko eskatuko nuke".

Lolo Encinas

(Iraurrik entrenatzailea)



"Gogo izugarria dago Iraurkin, eta laguntasuna nagusi da.

Zenbait hurrek saskibaloian jokatzeko daukaten go-boa ikustea oso garrantzitsua da nire ustez".

"25. urteurrena antolatzen hasi, lan dinamikan sartu eta hor segitzen dugu"

Jose Luis Zubizarreta *Xubi*-k dagoeneko 22 urte daramatza Iraurgi Saskibaloia Elkartean lotuta. Jokalari, entrenatzaile... izana da, eta gaur egun bertako lehendakaria da. Iraurgiren kirol-proiektu ekonomikoan buru-belarri dabil.

● **Iraurgi Saskibaloia Elkartea, desagertze-egotetik kirol-proiektu ekonomikoa aurkezte-
ra heldu da. Nola eman da salto hori?**

1993-1994tik 2000ra artekoa oso gogorra izan da. 2000. urtean aspertuta geunden: ezin entrenatzaile-aurkitu eta

abar. Orduan, bilera zabala antolatu genuen. Jendea pixka bat sentsibilizatu egin zen, eta bileratik orduko taldeentzat entrenatzaileekin irten ginen. Gero, klubaren 25. urteurrena antolatzen hasi eta lan dinamika batean sartu ginen, eta hor segitzen dugu.

● **Gero teknifikazio eskola sortu zenuten. Nolatan?**

Gure semeak saskibaloian jokatzeko nahi zuen; beti nire ondoan ibili da eta hori ezagutu du. Donostiara, Easoko saskibaloia eskolara joaten hasi nintzen semearekin. Handik zer

“Orain dela 18 urte eduki genuen antzeko asmo bat Pikua tabernarekin”

hartu pentsatzen hasi eta horrela hasi ginen. Gero, berriz, beldur handiarekin, kuota bat kobratzen. Eskola egituratzen joan gara eta kuotarekin moni-tore-entrenatzaileei ordaintzen diegu. Jokalariek ere ordaindu egiten dute, kanpotarrek izan ezik. Eta lan pixka bat egiten duenak kobratu egiten du. Horrela, errazago joaten gara gazte jendearengana laguntza eske. Azkenean, diru hori saskibaloian gastatzeko da.

● **Kirol-proiektuan izan al du-zue kontuan beste talde baten adibiderik?**

Hau aspaldi asmatuta dago; Lagun Onak Futbol taldeak ere izan omen zuen taberna. Kirol elkarte asko daude kiroldegia-kudeatzen dituztenak. Badaude beste adibide batzuk ere: Arratek Eibarren bingoa du... Bestelako diru sarrerak kudeatzeko modu bat da. Orain dela 18 urte eduki genuen antzeko asmoa Pikua tabernarekin. Orain borobildu egin da gaia. Ez da kontu berria. Kanpoko diru sarrerak lortzeko saio hori gero eta gehiago egiten da. Niretzako kirol-proiektuaren be-raren helburuak dira ardatza. Azkenean, kirola egitea kirola egiteagatik, talde bateko par-taide izateko eta kirola egitea ona delako.

● **Proiektuarekin ilusionatuta?**

Orain lanetik bajan nago eta honetara nago. Proiektua martxan utziko dut.

● **Jarraitzaile asko al du Iraurrik?**

Gaur egun Azpeitian kiroldegira saskibaloia ikustera etor-tzen den jende-tza Euskal He-rrian ez da inon joa-ten, Tau eta Bilboko taldea kenduta. Gipuz-koan ez dago guk adina aukera duen klubik, gu bi herri-tako elkarte baikara. Datorren urtean ziu-renik 12 talde fede-ratu izango ditugu. ●



amuko zubitik Jokin Uranga



AMETS TXIKIAK...

Maiz aipatu ohi da, amets txikien ondorio direla proiektu handiak. Gurea, Ernia-rraitzena, ez dakit zenbateraino den handi, baina gutxienez bada proiektu bat, eta, gainera, bide zuzenetik abiatu zena, zalantzarik gabe. Oraindik ere ez da heldutasunera iritsi, bost urte besterik ez baititu, eta eskerrak, bestela jubilazioa ere gertuago izango bailuke, eta guk ez dugu hori nahi! Hala ere, horrek ez du esan nahi Azpeitian bertsogintza orain dela bost urtetik honako errealitate bat denik. Pentsa, badira jardun horretatik erretiroa hartuak, eta aspaldi hil zirenak ere bai, noski. Baina izan zirelako garenez, eta garelako izango direnez, horri guztiari forma eman nahi izan genion, gorputz bat. Horretarako, amets eta helburu berak edo gutxienez antzekoak genituen bertsozale batzuk hasi ginen elkartzen, antolatzen. Egia esan, ez zirudien lan erraza izango zenik, ez baikenuen baliabide nahikorik lana nahi bezain eroso egiteko.

Baina langile nekaezin batzuei esker, hasi ginen gauzak bere lekuan jartzen, eta batzarrak ez dakit noren elkartean egitetik, geure lokalean egitera iritsi ginen. Geroztik, zenbat bertso entzun ote du zezen-plaza ondoko txabolo zaharrak! Eta ez hori bakarrik, kalera begira egin ditugun ekintza guztien abiapuntu ere bera izan da. Ekintzen artean batzuk aipatzekotan: Kilometroak'2000 zela-eta Izarraitzen egin genuen bertso-antzerkia ipiniko nuke, edo bertso-antologia, bertso-paper lehiaketak, bat-bateko txapelketa, hitzaldiak, afariak, aurten lehen aldiz santotomasetako saioa Soreasun... Eta laster, martxoan, izango dugun Bertso Astea. Baina lana, urte guztian pilatzen zaigu, bertso eskolen ardura ere guk hartu baitugu. 50 bat senidez osatutako sendia da bertso eskolena, eta esan dezakegu bertsogintzak, Azpeitian, inoizko girorik oparrena bizi duela gaur egun. Horra amets txiki bat proiektu handi bihurtzen.

azketako ude Ainhoa Odriozola



FESTA ONDORENAK

Pasa dira sansebastianak ere, eta hemen-txe nago, idatzi nahi eta ajearekin borrokan (parranda eta haurren danborrada, konbinazio lehegarria). Bakoitzak bere erara bizi-tzen du festa, eta Azpeitian ere denetik dago, baina garbi daukat azpeitiarrak festa hau benetan "bizi" egiten dugula. Batzuk parrandan pozik (bere ondorioekin), besteak danborra joaz solemnitaterik, sokamuturrean sasoia jokatuz, haurrak irrikaz eta ilusioz eta gurasoak ezin kabituta... Denak dira baleko moduak. Egun hori arrastoa galdua diozun jendea ikusteko aukera paregabea da, kanpoan bizi direnenentzako ezinbesteko hitzordua. Nahiz eta jatorrian hala ez izan, sansebastianena geurea egin dugun festa da, eta geure geurea den harrotasunez ospatzen da.

Aurten Donostian, beste ekintza askoren artean, Kresala Elkarteak omendua izan da; 1980an danborradan irten zen lehen talde

mistoa hain zuzen ere. Ez zen goxoa izan: beste elkarleen gaitzespena jaso zuten, banda askok beraiekin jotzeari uko egin zioten, eta prentsan aurkako iritzi ugari argitaratu zen. Gaur egun, Donostian taldeen %60 mistoak dira.

Azpeitian ez da horrela gertatu, zorionez. Emakumeak danborra jotzen ugari dira, eta gero eta elkarte gehiagotan. Elkarte bakoitzaren barneko eztabaidetan ez naiz sartuko, baina haize berriak ikusi ahal izan dira aurtengo danborradan talde batzuetan, eta poztekoa dela iruditzen zait. Nahikoa gertakari triste ikusi ahal izan ditugu Irun edo Hondarribia aldera begiratu. Aurka dagoenik egongo da, baina oraindik egiteko asko ikusten duenik ere, baina, moduari dagokionez, Azpeitia (ikusiak ikusita), adibide gisa hartzeko dela deritzot. Festa harrotasunez bizitzeko beste arrazoi bat, hala nahi duenarentzat.

hiruko txikiyen

Iban Arregi

1 KASUALITATEA?.

Uztarriak lau orrialdeko agenda argitaratu zuen 1998ko martxoan, hilero-koa; handik gutxira, *Azpeitian Zer?* hilean behin argitaratzen hasi zen Udala. *Uztarriak* herri aldizkaria argitaratu zuen 1999ko azaroan; pixka bat lehenago, herri aldizkariarena herrian jakina zenean, *Azpeitian Zer?* orrialde gehiago egiten hasi zen, eta editorial batean azpeitiar denen herri aldizkari moduan aurkeztu zen; *Uztarriak* aldizkaria berritu egin zuen 2002ko urtarrilean, eta web orria aurkeztu; *Azpeitian Zer?*-ek orri kopurua gehitu zuen orduan. *Uztarriak* *Hitza*-ren sorreran parte hartu du orain, eta *Azpeitian Zer?* koloretan... Kasualitatea ala kausalitatea?

2 EUSKAREN ZENBAKIAK.

Udaleko batzorde batean sei zinegotzi bileran, denak euskaldunak. Beste bat (PPkoa), zazpigarrena, kanpotik dator, erdal-duna, euskaraz ez dakiena. Beraz, zazpitik seik euskaraz dakite, eta zazpitik zazpik dakite erdaraz. Erdara nagusi, beraz. Eta orduan, edo itzulpen zerbitzua jartzen da, edo bestela erdaraz egingo du lan batzorde horrek, PPkoarekiko *errespetuagatik*. Eta beti euskara galtzen. Baita Azpeitian ere.

3 PINTADAK.

Azpeitian egun bat baino gehiago iraun duen pintadarik eza gutzen? Bat Erdi kalean egon da, kantoian, gaztetxea zenaren pare-parean. Dotorea marrazkia. Baina ezabatu dute hura ere. Pintadak pareta zikindu egiten du, bai. Baina pintadak ohikoa ez dena ere esaten du, paperetan agertzen ez dena, politikoki ez zuzena. EHNAren aldekoa zen Erdi kalekoa, eta bukatzeko zegoen.



EMAKUMEAREN MAHAIA. Emakumearen Mahaiaren ekimenaz azkenaldian tailer

eta ikastaro ugari ari dira antolatzen emakumeentzat. Asko, gainera, berriak dira; antzerki eta brikolaje tailerra, adibidez.



JOSE ARTETXEN. Jose

 Artetxe kalean goiz eta eguerdi partean ez dago kotxearekin ibiltzerik ere. Alde bietara, bigarren ilaran kotxeak edo kamioiak aparkatuta izaten dira, eta trafikoak zuzentzeko udaltzainik ez.



ITURRIA. Nuarbeko ur-

? tegiaren inguruko ibilbidean iturri bat bera ere ez dago. Jende asko joaten da oinez ibiltzera edota lasterkan egitera. Noiz jarriko da iturriren bat? (ez da lehen aldia hori jarri duguna).

uztarria.com

GAIA: Uztarriaren web guneko ‘albisteen’ atalean sokamuturra dela-eta iritziak egon dira. Hona hemen iritzi horietako sorta bat:

Sokamuturra:
sansebastianak
2004, Eliz kalea

Joxin Belokik *Azpeitiko Jaiak* liburuan kontatzen duenez (231. orrialdea), garai batean zezena pilotalekuan ibiltzen zuten, sokarik gabe.(...) “Zuhaitzekin makina bat jolas egiten genuen”, dio Belokik. “Petrilak ere joko haundia ematen zuen” Baina behin, sustoa galanta! “Zezena orain Ilunpe soziedadea dagoen etxe barrura sartu zen, eskailerak igo zituen eta adarrekin ‘Meltxoraren’ pisua- ren atea jo zuen. Orduan ‘Meltxorak’ atea ireki omen zuen norbait ate joka ari zelakoan”...

Alegia, zezena karrera batean sartu zela orduan. Irekita zegoelako. Kostatuko zaio gaur egun sartzea, batez ere handik gertu daudenetan: Eliz kalekoe-tan. Gero eta karrera gehiago

egoten baitira itxita. Oso adierazgarria izan da aurten sansebastianetan gertatu dena: bizi osoan zezena, Ustarrineko taberna parean lotzean, denbora luzez ibili izan bada ere, aurten pare bat minutuz besterik ez dute ibili sokamutilek, ondoko ia karrera denak itxita zeudelako. Protesta gisa, hartu soka eta Enparan kalera eraman zuten segituan, bai 18an, bai San Sebastian egunean.

Eta tristea da. Pare horretan gaur egun ez dago girorik. Lehen bai kale giroa, festa giroa...

Modan jarri da, nonbait, sokamuturreko kaleetan karrerak ixte hori. Erantzunkizunik ere badute adibidez mixikordiyen alde batean bakarrik jartzea? Sokamuturra, begiratzeko ikuskizun bihurtu da toki horretan (ere), ez parte hartzeko ikuskizun; hala, han lehen beti irekita egoten zen notaritzako karrera *desagertu* egin da. Ikuskizun pasiboa-ren birus hori hedatuz doa

beste kaleetara, eta Eliz kalean
gogor ezarri.

Horren aurrean zerbait egin beharra dago. Sokamuturra gustatu edo ez gustatu, herritarrek parte hartzen duten festa da, izaera parte-hartzailea du, herri giroa egoten da, eta gizartea gero eta indibidualistagoa bihurtzen ari den honetan, izaera horri bere garrantzia eman behar zaio. (...)

Enekoitz Esnaola

Zabaldu ateak
festari,
sokamuturrari

Ez dakigu zergatik, baina jakin-
go genuke gustura. Gero eta
ate gehiago aurkitzen ditugu
itxita sokamuturra kalerik kale
daramagunean. Karrerak itxita
diren kaleetan ez dago jolasik,

ez festarik, soberan da sokamuturra. Karreretan zerbait apurtzen bada, Udalak badu horretarako aseguria egina. Ateak irekitzea eskatuko genieke herritarrei, eta bestela itxearen zergatia jakinaraztea. Udalari ere bereak dituen ate, leiho eta balkoiak irekitzea, jendeak festaz gozatzeko aukera izateko. Sokamutilok (...) sokamuturraren zama eramaten saiatzen gara; urtetik urtera gauzak hobetzen, baina ondo legoke sokamuturraren zale direnen arteko auzolandegi edo talde bat osatzea, egoerak eskatzen baitu horren beharra.

Aitor Unanue (sokamutilla)

Errespetua

(...) Jendearen etxeaz ari gara; haiek erabaki baldin badute karrerak ixtea errespetatu egin behar da. Proposatu nahi duzen guztia, baina hemen ez hasi presioa egiten karrerak irekitzeko. (...)

Porfapliiiss

akulue



Leire Ostolaza

'HITZA'

EGUNKARIA

Zorionez, *Urola-Kosta-ko Hitza* euskarazko egunkari berria aterako da. Gurean gehiengoak euskaraz hitz egiten duen arren, ez da erraza gertatzen jendeari betiko *Diario*-a erosteko ohitura kentzea. Sarri esan izan dugu adineko jendeak euskaraz irakurtzeko dituen zailtasunengatik dela. Baina, denboraren joanean, konturatzen ari naiz gazte ugari eusten diola etxeko ohiturari; eta, tabernaren batean egunkari bati kolpe egiterako orduan, betiko Azpeitiko *karta* eta Realaren berri ematen duten kirol orrialde amaigabeak biltzen dituztela. Beste hainbat gauza bezala, automatikoki egiten den zer bait da, eta apur bat pentsatzen jarriko bagina, ez dut uste gehiengoak bere dirua ematen dion publikazio horri emango ziokeenik. Iruditzen zait geure buroari harrika egitea dela, eta beste egunkarien hurbiltasunik eza aitzakiatzat zutenek orain badutela egunero herriari dagokion orrialde bat, bertatik bertara egina, euskaraz emana.

Kontzientzia kontua da, beraz, egiten dugunaz konturatzea. Alegia, beste mila gauzetan bezala, bi aldiz pentsatuko bagenu gure dirua zertan xahutzen dugun, gero zertan erabili-ko den jakinda, ez luke gure hizkuntzak izango prentsa idatzian gaur egun duen leku apala.

galdeiez

Tabernatako prezioek urte hasieran igo egin ditzuzte. Zer iruditzen zaizu?



Nekane Aranbarri

(langilea)

"Ez zait ondo iruditzen tabernetako prezioak igotzea.

Horrela jarraituta, laster etxean kafea hartuta atera beharko gara. Hileroko soldata berdin igoko balitz, ez legoke gaizki; baina zoritxarrez, ez da horrela gertatzen".

Arantxa Elias

(aurre-jubilatua)

"Ez zait oso ondo iruditzen prezioak nola igotzen dituzten. Prezioak igotzerakoan K.P.I.-ren arabera igo beharko lituzkete

hemerrotekie

MIRETSITAKO LAGUNA

Joxerra Garzia ('Berria', 2004-01-18)

Gozamenak gozamen hutsak eraman ninduen ni bertso mundura. Afizioa ofizio bihurtu zitzaidan gero, eta horrek, egia esan, puska dezentea kendu zion nire bertso gozatzeari.

Franco hil berri, Arrasateko ikastolan nenbilen, maixu edo. Saiorik saio ibili ohi ginen, Jexus Mari Mendizabal lan- eta adiskidearen Renault-5 urdin txiki hartan, sekulako kuadrila: Jexus eta biok, Pernando, Xenpelar, Txirrita eta Xalbador, besteak beste. Bertso ibilbide hartako geltokirik maiteena Oñatikoa zen guretzat. Han, Migel Galdos eta Nikolas Seguiolaren jiran, bertso afari mundiala antolatzen zen urtero, beti bertsolari berekin: Joxe biak Agirre eta Lizaso, eta Imanol Lazkano. Urtea joan urtea etorri, irrikitan joaten ginen beti saio hartara, eta loriatan ateratzen beti ere beti, hiru azpeitiarren jardun neka ezinak asetuta. Halako batean saioa amaitzen zenean, komentario bera egiten genuen urtero. Gozatu, hirurekin gozatzen genuen, baina Lazkanok, gozaraziz gain, harritu egiten gintuen: haren bertso barneko toledura bikainak, haren errima jokoak, haren bertso-kerak klasiko eta aldi berean modernoak. Miresten genuen Lazkano. Orain badakit ez ginela bakarrik. Egañak, Sarasuak, Muruak eta beste hainbatek sarri aitortu izan didate Lazkano zutela, 1980 inguru hartan, bertso-tako idolo. Orain, liburua dela eta, lan dezente egin behar izan dugu, miresmen horren oinarri ziren Lazkanoren bat-bateko bertsoak biltzeko. Miatu ez ezik, nahastu ere egin behar izan ditugu baz-

terrak, baina nago liburura aldatu dugun laginak argi eta garbi erakusten duela zer mailako bertsolari izan den eta den Imanol Lazkano. Bitara da, gainera, bertsolari bikaina. Aipatu bertso barruko lan harrigarri horrez gain, beste balio bat ikusi diegu orain bertsoei: gairik korapilatsuenetan ere nola asmatzen duen ikuspegi aurrerakoi bati eusten, topikoei ihes egiten. Baina bada beste Lazkano bat ere, bertsolaria bezain miresgarria, eta hori ere azaltzen da liburuan. Hala espero dugu behintzat. "Zenbat busti nahi den, hainbeste ur dago bertsoaren putzuan", esan zigun Bertsozale Elkartea sortu zeneko bilera hartan, eta nago esaldi horrek ezin egokiroago islatzen duela miresten dudan bigarren Lazkano hori: Lazkano hiltun eta hiltari aparta. Eta ez hori bakarrik, esaldi horrek Bertsozale Elkartearen "estiloa" ere primeran laburbiltzen baitu: bertso-gintza bertsolaritza, eta bertsolaritza herrigintza, zerbizura dagoen jardun gisa ulertzea, alegia. Ez da ideia soila: lan egiteko modua ere bada, eta horrek egiten du Bertsozale Elkartea gizarte honetan gero eta eskasago diren balioz betetako oasia. Elkartea sortu zenetik izan da Imanol lehendakari, baina ez lehendakari bakarrik: Elkartearen balioen bilduma eta eredu bizia da Imanol. Liburuaren hitz lauzko pasarterako hautatu dituen gaiak ikustea aski da horretaz konturatze-ko. Ez da autobiografia, sortu zenetik gaur arteko bidean izan dituen inguruekiko sentitzen dituen zorren aitorten garbia baizik. Nola bertsoak hala hizketak dezente galtzen dute noski papereko zuri-beltz lehor mutuan. Eta, hala ere, nago aski argazki fidela aurkituko duela irakur-

baina gutxitan gertatzen da hori horrela”.

Arantzazu Aramendi
(langilea)



“Ez zait ondo iruditzen. Tabernatan kontsumitzea gero eta garestiagoa da. Laster kafea kalean hartu beharrean etxean hartu beharko dugu”.

Maria Luisa Txintxurreta
(etxekoandrea)

“Oso gaizki iruditzen zait. Gainera euroa sartu zenetik gau-

UZTARRIAREN
WEB ORRIKO
INKESTA

1. GALDERA: EH-
Narik ba al duzu?

- Ez eta ez dut atara behar: % 29
- Bai: % 45
- Ez, baina laster aterako dut: % 9
- Bai eta erabili egingen dut: % 17

zak asko garestitu dira, eta lan-saria ez da berdin igotzen. Lehen tabernatako prezioak igotzen zirenean bost pezeta igotzen ziren; eta orain, berriz, bost zentimo igotzen dituzte, lehen baino gehiago alegia”.

Alberto Aramendi
(langilea)

“Ez zait ondo iruditzen, soldatak eta prezioak ez direlako berdin igotzen. Baina tabernariei ere salneurriak igo egiten dizkiete, eta igoera nolabait berdindu egin beharko dute. Tabernariak ere nonbaitetik bizi behar dute”.

Osane Amilibia
(langilea)

“Oso-oso gaizki iruditzen zait prezioak hainbeste igotzea. Hileroko soldatak ez dituzte igotzen, eta prezioak igotzen badituzte nondik ordaindu behar ditugu?”

M. Carmen Garagartza
(etxekoandrea)

“Nik ez dut tabernatara joateko ohiturarik. Baina orain prezioak asko igo badituzte, lehen baino gutxiago joango naiz tabernatara”

“Miresten genuen Imanol Lazkano. Orain badakit ez ginela bakarrik”

“Gairik korapilatsuenetan ere nola asmatzen duen ikuspegi aurrerakoi bati eusten”

“Are gozagarriagoa da oraindik lagun duzun hura miretsi ahal izatea”



leak liburuan. Argazkia baino ez, baina argazki fidela hala ere. Hasieran esan dut nire bertso gozamenari dezenteko puxka kendu ziola afizioa ofizio bihurtzeak, eta egia da hori. Egiaren erdia baino ez, ordea. Kendu ez ezik, eman ere egin baitizkit gozatu eder askoak bertsolarien artean ibiltze horrek: Elkartea bera, lagunarte paregabeak eta lagun aberasgarri askoak, esa-

terako. Azken horien zerrendan aurre samarrean daukat nik Imanol, eta gozagarria bada miresten duzun hura lagun izatea, are gozagarriagoa da oraindik lagun duzun hura miretsi ahal izatea. Liburuan ez da Imanol osorik ateratzen, baina uste dut Imanol lagun izateko eta mirestekoa arrazoiak argi eta garbi azaltzen direla behintzat.

KONTUZ, LAPURRAK!

Azkeneko hilabete hauetan gero eta lapurreta gehiago ari dira gertatzen Azpeitian. Ertzaintzak esan duenez, orain lekuz aldatu dira, Damaso aldera



“Lapurrak barruan zeudela etxeko jabea etxera sartzen hasi zen, baina atea trabatu egin zioten barrura sartzen ez uzteko”

M.B.

(lapurreta egindako etxe bateko langilea)

“Lapurreta gertatutakoan, hasieran gaizki egoten zara, eta etxe osoa ixten duzu, baina sartu nahi badute sartu egingo dira”

I.A.

(bere etxean lapurreta egin dute)

(on Aranburu)

Azkeneko hilabeteetan herrian gero eta lapurreta gehiago egiten ari dira. San Sebastian jaien inguruan Damaso aldeko hiru etxebizitzatan egin zuten. Azken hilabeteetan Loiola-bide eta Sanjuandegi auzoetako etxeetan egin dute lapurretan. Orain auzoz aldatu dira, Damaso aldera. Hala baieztatu dio Ertzaintzak Uztarriari: “Orain arte Sanjuandegi eta Loiola-bide auzoetan ibili dira, baina orain lekuz aldatu dute, Damaso aldera”.

Lapurretak egiterakoan, beti antzera egiten dutela ere esan du Ertzaintzak. “Beti modu bera erabiltzen dute. Lehenik tinbrea jotzen dute etxean inor ez dagoela ziurtatzeko, eta gero barrura sartzen dira. Tinbrea jotakoan norbait atereaz gero, edozein aitzakia erabiltzen dute, postariak direla eta antzekoak esaten dituzte”.

M.B.-k lapurreta egin zuten etxe batean egiten du lan. “Etxean inor ez zegoela sartu ziren, ate nagusitik”. Baina etxe horretan lapurrak ezusteko batekin aurkitu ziren. “Etxeko jabea etxera sartzen hasi zen lapurrak barruan zeudela. Lapurrek atea trabatu egin zioten ez sartzeko. Atea ezin zueenez ireki, goiko bizilagunarengana joan zen, atea irekitzen laguntzeko eskatzera, eta orduan aprobetxatu zuten lapurrek etxetik alde egiteko. Dirua eta bitxiak harropatu zituzten”. Ertzaintzak esan duenez, beti gauza antzekoak arrapatzen dituzte; dirua, arropa onak eta bitxiak”. I.A.-ren etxean ere sartu ziren, arropak eskegitzeko tokitik. “Eskaileratara leiho txiki bat dago, arropak eskegitzeko lekutik, eta leihoa eta burdinsareak puskatuta sartu ziren. Erlojuak eta ordenagailua lapurtu zizkiguten”.

SENTSAZIOA. Biak ados daude okerrean etxean sartu direlako sentrazioa sumatzen dela esatean. M.B.-k dioenez, “etxe guztia arakatu zuten, alde guztietan ibili ziren”. I.A.-k dioenez, “gure gelako armairuan-eta ibili ziren”. Gero, neurri bereziak hartzen hasi zirela ere esan dute. “Lapurreta gertatukoan, hasieran gaizki egoten zara, eta etxe guztia ixten duzu. Baina gero pentsatzen hasten zara, eta sartzea nahi badute sartu egingo dira, hori da okerrean”. M.B.-k esaten du “nagusiak etxeko atea beti giltzarekin itxi egiten du, bai kanpora doanean eta baita barruan dagoenean ere. Izu hori dauka”. Eta hori da Ertzaintzak zabaldu duen gomendio nagusia: “Lapurretak ez gertatzeko, atea beti giltzarekin itxi”.

Azkeneko lapurreten egileak oraindik ez dituzte atxilotu, baina susmoak ba omen dituzte. Iazko lapurreten egileak atxilotu zituzten, Bilbon bizi ziren atzeritar batzuk. ●



ZURE BEREZKO DOTOREZIA JANZTEN DUGU

LURRINAK - BITXIAK - MAKILLAJEAK - OSAGARRIAK

gotain



LURRINDEGIA

ERDIKALEA 3, AZPEITIA
TEL. 943 814 358

**BILATZEN DUZUNA BILATZEN DUZULA,
BETI GAUZA BERA AURKITUKO DUZU**

AUKERARIK ZABALENA

Era guztietako produktuak eta zerbitzuak, diseinuak eta prezioak. Nahi dituzun bezalako baxerak edo mahai-tresnak, ateentzako heldulekuak, gortinentzako barrak, tiradera-eskulekuak, sukalderako osagarriak eta etxerako eta brikolaje-lanetarako behar duzun guztia... **etxeberrian** den-dena aurkituko duzu. Baita gure profesionalen arreta eta laguntza osoa ere.



**eTxe
Be
RRIA**
Brikolajea & Etxea

GARMENDIPE KALEA, 1 (futbol-zelaiaren aurrean) • 20730 AZPEITIA

BADUZU NON AUKERATU



Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Arretxe, 21 Tel.: 943 153392
AZPEITIA



PATXO

EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerriegia
Euskal Herriko Haragirik Onena
San Inazio Kalea 12an
Urrut. 943 81 14 98




bertako okela
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKO 15 00 03
AZPEITIA



Harategi Odriozola

Harategi
Especializatua
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



JB San Sebastián

HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94
AZPEITIA



ZABALA HARATEGI

KALITATEZKO
HARAGIA
BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFONOA.: 943 811671



BERTAKO HARAGIA... ...GURE HARATEGIAN

EUSKO LABEL



KALITATEA

**EUSKAL
OKELA**



CARNE DE VACUNO
DEL PAIS VASCO



Fredi Paia, Jokin Uranga eta Xabier Silveira bertsolaria Oilo-Soro elkartearen, urtarilaren 16an, egin zuten saioan. / ENEKOITZ ESNAOLA

LEHENGOEN BIDETIK

‘Zaharrak Berri Tour’ bertso ekimenarekin dabil Uranga, Paia eta Silveira hirukotea

Josu Uranga

Lehengo bertsolari zaharren antzera bertso ekimen bati heldu diote hiru bertsolarik: bata azpeitiarra da, Jokin Uranga; bestea Algortakoa, Fredi Paia; hirugarrena lesakarra, Xabier Silveira. Hirurak ere gazteak dira. Behin elkartu, hizketan hasi eta *Zaharrak Berri Tour* ekimenari heldu zioten. “Silveira eta biok —kontatzen du Urangak— hizketan hasi ginen, nola tabernatan bertsoari lekurik ez zaion ematen eta beti aretoetan egiten diren bertso saioak. Jendea bertsolaritzara hurbildu beharrean, bertsolaritza jendearengana hurbiltzearen inguruan zerbait egin nahi genuen. Halaxe, behin Ibarra, kasualitatez, bertso saio batean Paia, Silveira eta ni tokatu ginen, eta Paia komentatu genion. Eta halaxe aterata zen kontua”.

laz, abenduaren 26n Zestoan, Zoro Peri egunean aurkeztu zuten *Zaharrak Berri Tour*. Gero, Donostian, Egiako Garraxi tabernan egin zuten lehen saioa. “Bertso librean jarduten dugu saioetan, lehengo bertsolarizaharren antzera. Ideia ere hortik dator, lehengoak tabernatan jarduten zuten bertsotan. Lehenengo saioa ondo aterata zen, eta aurrera egin dugu”. Hasierako asmoa zortzi saio egitea zen, baina dagoene-

“ Jendea bertsolaritzara hurbildu beharrean, bertsolaritza jendearengana hurbildu nahi dugu”

Jokin Uranga

(Zaharrak Berri Tour-en ari den bertsolaria)

ko beste hiru gehiago atera zaizkie, bat gainera Bartzelonan.

AZPEITIAN. Urtarrilaren 16an hirugarren saioa egin zuten Azpeitian, Oilo-Soro elkartearen, Hartz-Behetik-ek antolatuta. 40 bat lagun bildu ziren afaltzera, eta gero *Zaharrak Berri Tour*-eko bertsoez gozatzen. Sagardotegiko menua izan zuten denek. Postrearen ondoren bertsoen txanda heldu zen, eta hiru protagonistak mahaitik zutitu eta kantuan hasi ziren. Gai librean eta bizi-bizi jardun zuten bertsotan. Lehenengo bertsolarien bidetik ari ziren bertsolarien jardunak aurrera egin ahala giroa ere berotuz joan zen entzuleen artean. Hala bada, mahaian eserita zeuden zenbaitek bertsolariei erantzun zien, Haritz Etxeberria *Ministro*-k eta Fede Aranbarrik, besteak beste. Bi orduko saioa eskaini zuten. ●

udaleko kontuek

Lau udaltzainen plaza betetzeko deia egin du Azpeitiko Udalak

Urtarrilaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Udaltzaingorako lau udaltzainen plaza betetzeko deialdia argitaratu zuen Azpeitiko Udalak. Lehiaketa-oposizio bidez egingo da une hauetan funtzionario plantillan hutsik dauden lau udaltzainen hautaketa. Plazetara aurkezteko bigarren hizkuntz eskakizuna izatea eta akreditatzea derrigorrezkoa izango da. Bestetik, lehiaketara aurkezteko Espainiako nazionalitatea izan

beharko da; 18 urtetik 32 urtera artekoa izan behar da; gizonetzkoetan gutxienez 1,70 metroko altuera izan behar da, eta emakumezkoetan 1,65 metrokoa. Eskola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo antzeko tituluren baten jabe izan beharko da. Lau lanpostuetarako dokumentazioa Azpeitiko udaletxean aurkeztu behar da, otsailaren 12a baino lehen. Epaimahaia honakoek osatuko dute: epaimahaiburua (udalbatzarrek aukeratu du), alderdi bakoitzetik ordezkari bana, Azpeitiko udaltzainburua, Euskal Herriko Polizia Ikastegiko ordezkari bat, langileen ordezkari bat eta idazkaria.

Nerea Mendizabal

gurien...

psikopegagogoa

“Neu etorri nintzen Azpeitira, haur masaje ikastaroa eskaintzera”

Ion Aranburu / Nerea Mendizabal haur masaje hezitzailea da. Zestoarra da eta hilabete honetan zehar Azpeitian izango da. Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatutuen haur masaje ikastaroak zuzenduko ditu.

● **Haur masaje ikastaroak eman behar dituzu Ikasberri Azpeitiko Ikastolan. Nolatan?**

Ikastetxe batzuk gai horren inguruan sentsibilizatzen hasi dira. Eta Azpeitiko kasuan neu etorri nintzen, Ikasberri proiektua eskaintzera, eta hortik atera da ikastaroa. Baina haiek esan zidatenez, gai honekin hasita zeuden pentsatzen.

● **Ikastaro horietan zer erakusten da?**

Batez ere 0-1 urte bitarteko haurren gorputza nola landu erakusten da. Ikastaro hauen helburua ukimenaren bitartez haurrarekin komunikatzea da, eta gurasoa eta umearen arteko komunikazioa lantzen irakasten da. Izan ere, adin horretan, umea txikiegia da hitzez esandakoa ulertzeko, baina ukimenaren bidez esandakoa ulertu egiten du. Komunikazio hori lantzen ere erakusten da. Eskola amaieran artikulua ere irakurtzen ditugu. Gurasoen artikulua horien inguruan eztabaidatzen dute. Iriztiak trukatzu lasaia gelditzen dira, arazo berdinak izaten dituztelako.

● **Nolako harrera izan du?**

Lehen aldia da Azpeitian tailer hori ematen dudana; bi talde aurreikusten nituen, eta biak bete dira. Gainera, hezitzaileek ere interes berezia agertu dute ikastaro honen inguruan, eta haiantzako ere beste talde bat osatu da. 2-3 guraso kanpoan gelditu dira, leku faltagatik, baina jende gehiago animatuko balitz, beste talde bat ere osatuko genuke. ●



Euriteen ondoren, Ibai Eder urtegiko ateak ireki ziren

Nerea Uranga / Urtarrilean egindako euriak Ibai Eder urtegian eragina izan zuen: denbora gutxian ura sei metro igo zen eta %94an beteta egon zen. Urtegiaren arduradunek urtegia garbitu eta husteko ateak ireki behar izan zituzten. “Eurite garaian ez genuen Ibai Eder urtegiko aterik ireki, beste neurri batzuk hartu genituen. Hau da, ur gaina garbitu genuen, hostoak eta enborrak kenduz. Euria gelditu zenean ireki genituen urtegiko ateak; urtarrilaren 26an ireki eta 28an, berriz, itxi egin genituen. Bi metro jaitsi genuen urtegiko ura”, dio Mikel Zubizarreta, Gipuzkoako Uren Kontsortziokoak.

Urtegiko ateak ireki ondoren Urola ibaiko lau tokitan kontrolatzen dute eragina. “Berrez, ibaiaren lau gunetan ura zenbat igotzen den uneoro kontrolatzen dugu, gu 24 orduetan ari baikara lanean. Urtegiko ateak ireki aurretik, ibaian obraren bat dagoen kontuan izaten dugu; eta obrakoei ateak ireki behar ditugula jakinarazten diegu”, azaltzen du Zubizarretak.

Iaz ere urtegia garai honetan antzeko ur kopuruarekin zegoen, %92 beteta. Baina 2002an oso baxu zegoen, %44an, eta orduan udaberria lehorra egingo ote zuen beldur ziren urtegiko arduradunak. 2001ean, aldiz, %84an zegoen.

Eusko Jaurlaritzak jarritako neurrian mantendu behar izaten da urtegiko ur kopurua. Eta garbi; horretarako, txalupekin hilero garbitzen dute ur gaina.

Nuarbeko urtegiak 11.300.000 litro ur biltzeko gaitasuna dauka eta 60.628ko populazioa hornitzen du. ●

“Urola ibaiaren lau gunetan ura zenbat igotzen den uneoro kontrolatzen dugu”

Mikel Zubizarreta
(Gipuzkoako Uren Kontsortziokoak)

Udala, sansebastianen balorazioan, “pozik”, baina kritiko ere azaldu da

Udalak “poza” azaldu zuen San Sebastian festak baloratzera-koan, “ondo joan” zirelako eta “parte hartze handia eta giro alaia nagusi” izan zelako. Horrenbestez, bere “esker ona” azaldu zuen. Bestetik, San Sebastian bezperan “gazte batzuk argi koadro bat sabotageatu” zutela salatu zuen, eta “plazan irakurri-tako komunikatuak gogoan ez zituen hartu indarkeriak herrian dituen beste biktimak eta mehatxatuak”, esan zuen.

Immersoren 2004. urterako bainuetxeetako egonaldiak

Udaleko Gizarte Zerbitzuak sailak 2004. urterako Immersoren bainuetxeetako egonaldietara eskaerak aurkezteko epea zabaldu du. Otsailetik abuztura bitarteko egonaldietarako izen-emate epea pasatu da. Baina irailetik abendura bitarteko egonaldietarako eskaerak egiteko epea maiatzaren 16a arte luzatu da. Eskaerak egiteko udaletxeko Gizarte Zerbitzuen bulego-ra jo behar da, edota 943-15 71 92 telefono zenbakira deitu.

pertsonajie

Julia Tercero

PPkoa da Julia Tercero eta Azpeitiko zinegotzi berria da. Urtarrilaren 8an hartu zuen kargua ohiko udalbatzarrean; gaztelania hutsean egin zituen kargu hartzeko hitzak.

Francisco Javier Piñeiro maiatzako udal hauteskundeetako PPko zerrendaburua ordezkaturako du.

Ez da Azpeitian bizi, eta azken udal hauteskunde-etan ez zen ageri PPk herrirako aurkeztu zuen 18 laguneko zerrendan.

Udaleko batzordeetan ere parte hartzera etor-tzen da Tercero. Azpeitia “Espainia” dela esan zuen, eta Habeako udal ordezkariari esan zien “hemen legez kanpo dauden bakarrak” ezker abertzaleko kideak direla... ●

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Otsailak 20 (ostirala)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Lur loradendako erosketa txartela

AURREKO ARGAZKIYE...



...ETA SOLUZIYUE



IRABAZLIE: Oihana Aranguren



Oihana Aranguren izan da 47. lehia-ketako garailea. Lidia dendako eros-keta txartel bat irabazi du. Argaz-kian, Oihana Aranguren —erdian— eta Lidia jantxidendako jabeak age-ri dira.

“Gaur egun joan den udan nire pilotan jokatzeko moduan izan nuen konfidantza falta zait”

Kepa Peñagarikano
(pilotaria)



Kepa Peñagarikano. / UZTARRIA

“Kazetari edo esatari bat? Joxe Mari Iriondo, eta harekin batera lan asko egin zuen Karmelo Otaegi”

Jose txo Lizartza
(kazetaria)

Azkenean bai: kostatuta baina Albizu Euskaltel-Euskadi taldera, etxera

Ilerea Uranga / Urtarrilaren 27an sinatu zuen Euskaltel-Euskadirekin bi denboraldirako kontratua Joseba Albizu txirrindulariak.

Gustura dago, berak nahi duena lortu baitu: “etxeko taldean” korritzea. Eguerdian izan zen Bilbon kontratua sinatzen, eta arratsaldean Euskaltel-Euskadiko elastikoa jantzita hurbildu zen Uztarrira.

Mercatone-Scanavino Italiako taldea desegin eta Meridional 2000 enpresarekin lotuta jarraitzen zuen Albizuk, eta gora-behera ugari izan ditu tarteko. “Etxeko talde” bat Albizu taldean hartzeko prest, eta ezin etorri. Azkenean, ordea, lortu du. UCI-k ere izan du zeresanik, hark bidalitako gutun batek Italiako kontratutik “aske geldit-

zen” zela esaten baitzuen. “Azkenean nahi nuen emaitza lortu dut: Euskaltel-Euskadirekin sinatzea eta etxera itzultzea”, dio Albizuk.

Aldizkari hau kaleratzen denarako talde berriarekin lehen lasterketa korritua izango du. “Palman dut lehen lasterketa, eta han debutatuko dut taldearekin”. •

“Azkenean nahi nuen emaitza lortu dut: Euskaltel-Euskadirekin sinatzea eta etxera itzultzea”

Joseba Albizu
(txirrindularia)



Joseba Albizu, Euskaltel-Euskadiren elastikoarekin, Uztarrrian. / UZTARRIA



AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA



PILDAIN
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es

Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA





Zumitza, ihia, ratana, forja eta medulazko altzariak lantzen ditugu

MATXIN XESTOAK
eskulangintza

✓ Pablo VI, 8 - 943 810116 (denda)
✓ Matxinbenta - 943 880174 (tailerra)



Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40

Ekain
AL BAIT ARI KLINIKA

Aliur

OKINDEGIA KAFETEGIA

Loiolako Inazio Hiribidea 6
943 81 38 01

motxien

Gorka Azkunek beste sari bat irabazi du

Gorka Azkunek 25 urtetik beherakoen CAF-Elhuyar saria jaso zuen urtarrilaren 16an, Lasarten. Sariketa honetan jasotzen duen hirugarren saria da. *Izarren energiaren bila* lanarekin jaso du oraingoan saria.



Gorka Azkune sariarekin.

Martxoak 8ko kartel lehiaketa abian da

Urola Kostako Emakume Taldeak martxoak 8rako kartel lehiaketa antolatu du. Otsailaren 17rako Azkoitiko 139 postakutxara bidali behar dira lanak. Gaia, *emakumeen ekarpenak gizarteari* da.

urtarrileko irudiye



URKE ARGAKIAK

TALDE BERRIAK. Bi talde gehiago izan dira sansebastianetako danborradan. Heldue-
nean Oilo-Soro Elkarte (goi-goian) eta txikienean Juan Antxieta Musika Eskola.



ORKATZ KULTUR ELKARTEA

Erdi Kalea, 24



TORREALDAY

aholkulari kontsultariak

Iberotarren plaza, 7 behe
Tfnoa: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atcortorrealday.com



J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

ERAKUSKETA:

Eliz kalea, 12 - behe
Tfnoa. eta faxa: 943 81 12 12
BILTEGIA:
Landeta Hiribidea, 19
Tfnoa. 943 15 16 66
20730 AZPEITIA
E-mail: iturralde@euskalnet.net

Bainuak
eta
bainu osagarriak

ESKANTZEN DUGUNA

Iturgintza
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta
berauen mantenu lanak
Gasa (EG-IV kategoria)
Erregai likidoak



ITURRALDE Iturgintza, S.L.

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira



81 53 35

J. R. Argandoña 'Keutin'

Mozorrozealea

Jesus Ruiz de Argandoña, 'Keutin' bezala ezagunagoa da. Azpeitian karnabalak ospatzen hasi zirenetik urtero irten da mozorrotuta astelehen gauean, eta sariak ere asko lortu ditu

“Mozorroa azkeneko orduan prestatzen dugu”

Jon Aranburu

Urteen poderioz, Jesus Ruiz de Argandoña *Keutin* Azpeitiko karnabaletako parte bihurtu da. Herrian inauteriak ospatzen hasi zirenetik urtero mozorrotu da. Berak kalean egiten dituen *show*-ak inauterietako ikusmin bihurtu dira.

• Zenbat urtetan mozorrotu zara?

Duela 25 bat urte hasi nintzen. Baina mozorrotzea legez kanpo zegoenean ere, urte batean mozorrotu egin nintzen, udaltzainen baimenarekin.

• Zein izan duzu mozorrorik gogokoena?

Bakoitzak du bere historia, batzuk oso ondo atera zaizkigu: ospitalekoa, *Caiga Quien Caiga* telesaiokoa eta Clintonena. Askok dira ederrak, eta denekin ondo pasatu dut. Izan ere, nik karnabaletan ondo pasatzera irteten dut.

• Beti taldean mozorrotu al zara?

Hiru betikoak izaten gara: Antton Martinez, nire anaia eta ni. Iaz, ordea, ez ginen atera. Desfile bat egiteko asmoa genuen, plazan eszenatokia jarrita. Baina azkenean ezin izan genuen egin. Ni pailazoz mozorrotu nintzen, inork ez ezagutzeko moduan. Mozorrotu gabe atera banintz, jende asko etorriko zitzaidan zergatik ez nintzen mozorrotu galdezka.

• Nolatan bururatzen zaizkizu antzezlan horiek?

Karnabalak baino egun gutxi batzuk lehenago afaltzeko biltzen gara eta han ateratzen dira ideiak. Gero, ideiak gauzatu egin behar izaten ditugu, eta beti azkeneko

orduan ibiltzen gara. Askotan, gaueko hamaiketan irten behar eta hamarretan oraindik prestatzen egoten gara. Baina jendeak beti asko lagundu digu. Gero, irtendakoan jendearekin hasten naiz hitz egiten, gaztelaniaz, niretzako errazagoa baita horrelakoetan.

• Nola egiten dituzu mozorroak?

Jedeak asko laguntzen digu. Urte batean medikuz jantzita ateratzea bururatu zitzaigun, eta astelehen arratsaldeko lauretan Donostiako ospitalera joan nintzen Orbegozo medikuarengana. Azaldu genion ideia, eta hau esan zidan: “Orain ere horrela al haiz?”; beti azkeneko orduan ibiltzen garelako. Bertako langile bati esan zion behar genuena uzteko, eta gauerako dena prest genuen.

• Noiz edo noiz zerbait berezia gertatuko zitzaizuen bada.

Hauteskundeena egin genuenean izugarrizko eguraldi txarra egin zuen, eta gordezera gindoazenean dena behera erori zitzaigun. Beste behin, mozorroa goiz pres-

tatu genuen, astelehen eguerdirako amaituta geneukan.

• Etxean zer esaten dizute?

Beti laguntzen didate, gomendioak ematen dizkirate. Baina kalean ikusten badituz kasurik ez egiteko esaten didate.

• Sariak ere urte askotan jaso dituzu.

Askotan. Saria lortu izan dugunean, mozorroa prestatzen lagundu diguten guztiak afaltzera joaten gara irabazitako diruarekin. Kirurira joaten gara, eta Paulari hau esaten diogu: “Paula, gaur gauean hama-bost lagun etorriko gara afaltzera, eta 90.000 pezetako aurrekontua dugu. Zeuk ikusi zer jarri”. Beti oso ondo jan izan dugu.

• Lehen desfilea egiten zen.

Ni ez nintzen ateratzen desfilean, ez zitzaidan gehiegi gustatzen. Kalean jartzen ginen, baina azkenean beti desfileak harra-patzen gintuen eta han ateratzen ginen.

• Astelehen gauean bakarrik mozorrotzen al zara?

Ez, igandean ere irteten dut. Urte batean, alkateari autoa lapurtu ziotenean, igandean igarlez mozorrotu nintzen. Kartel bat jarri nuen, eta han ateratako dirua alkateari kotxe berria erosten laguntzeko izango zela jarri nuen. Itsasikoekin ere atera izan naiz zapata garbitzailearena egiten, hiru bat urtetan. Astearte gauean ere hiru bat urtetan atera ginen, sardina-ehorzketan. Baina gero eta jende gutxiago biltzen ginen, eta bertan behera gelditu zen.

• Zertaz mozorrotuko zinateke?

Urteren batetan zerbitzariz mozorrotu nahi dut, eta taberna batean lan egin. •

“Jendeak beti asko laguntzen digu mozorroak prestatzen hasten garenean”

“Saria atera dugun bakoitzean lagundu izan diguten guztiak afaltzera joaten gara”



1. Keutin (seaskan) eta Mikel Zendoia.



2. Keutin, Antton Martinez, Patxi Zabaleta, Jabier Goenaga, Jose Ramon Azpeitia, Angel Aizpuru eta Jabier Aizpitarte.



3. Luis Mari Ruiz de Argandoña, Keutin eta Antton Martinez.



4. Keutin eta bere alaba, Idoia.

5. Luis Mari Ruiz de Argandoña, Antton Martinez, Mari Karmen Aranguren, Mari Feli Arzallus, Keutin eta Jose Maria Urrestilla.

6. Luis Mari Ruiz de Argandoña, Amparo Godoy, Keutin, Ohian Martinez, Pakita Albizu, Jose Arruti, Antton Martinez eta German Rekejo.



HAMAICA AZPEITIAK



Gaur egun hamaika azpeitiak dira espetxean edota ihes eginda daudenak, nahiz eta euskaraz mugagabea adierazten duen hamaika hori erabil daitekeen esateko hamaika azpeitiak eza-gutu dutela estatu espainiarraren terrorismo basatia: atxilotuak izan dira, torturatuak, tirokatuak... eta erahilak.

Ni asko inpresionatzen nau hamaika azpeitiak zehatz horien argazkiak (edota itzalak) ikusteak; tabernetan dakuskit, pankartetan, atariko horman, eta zerbait esan nahi didatela iruditzen zait, galdezka ari zaizkidala, ez dakit zer baina. Haien bizitza, haien historia, haien egoera dut gogoeta.

Argazkiok asko ugaritu dira azken urteetan, eta gaur egun adin tarte handiko jendea ikus dezakegu bertan. Esan daiteke zaharrenek herritik alde egin zutenean gazteenak ez zirela jaio artean, edo jaioberriak zirela. Ez zuten elkar ezagutu, baina argazkietan elkarrekin daude, arazo berak elkartuta, denek amets berberak barruan, denek borrokarako grina iguala zainetan, denek bihotz handia eta eskuzabaltasuna. Hain adin urrunekoak elkartuta egoteak esan nahi du zerbait: Bat, zaharrek konpondu nahi zuten arazoak jarraitzen duela, alegia, berdin-berdin 25 urte ondoren; eta bi, arazo hori konpontzeko bide berririk eta eraginkorrik ez dutela ikusi gazteek.

Lagun hauek egin duten sakrifizio pertsonala, profesionala, ekonomikoa, benetan handia da. Gure erosotasunak utzi, guk daukagun iji-ajako "buena vida" hau baztertu eta klandestinitatean bizitzera joatea oso-oso gogorra da. Horretarako buru-indar ikaragarria behar da. Jakinda, gainera, beste jende asko inplikatzeko zutela euren erabakiarekin, hau da, familiari sufrimendu ikaragarria ekarriko ziotela jakinda, sufrimendua, noraeza, diru-gastuak eta ikara. Izan ere, euren bizia arriskuan jartzen dute, baina jakina da besteen bizitzaren aurka doazela, ahal bada norbait hiltzera. Samin hori ikaragarria da. Hala idatzi zuen ederki Gabriel Arestik: "ETAren amek asko sufritzen dute semeak hiltzen dizkietenean, eta batez ere, semeek hiltzen dutenean".

Aitortu behar da, bestalde, gaur egun gure gizartearen ia gehienek ez dutela onartzen lagun hauek hartutako bidea; gero eta gehiago, baita ezker abertzalearen baitan ere, gaitzetsi egiten da pistola hartu eta guregandik ezberdin pentsatzen duenari buruan tiro bat emateko bidea, edo gure aurkako legeak eta aginduak ematen dituen hiltzeko bidea. Horregatik, lagun hauen bihotz zabaltasuna eta oportazio pertsonala ez dira behar beste miresten eta onartzen. Herria

HILEKO GALDERA.

Larunbat
gaueko giroa
hainbeste
jaitsi al da?

maitatzeko oso bide egokia ez dutela aukeratu esaten da, maitasun horrek herri honen etsaiak indartu egiten dituelako. Eta paradoxikoki, bide horrek eurak hain maitea duten herri horretatik urrundu egiten dituelako; nora, eta espetxera, exiliora, milaka kilometrorra, eta gainera, gehienetan, urte askotarako.

Halere, egin litezkeen interpretazio guztien gainetik, gaurko egoerari aurki dakizkiokeen alternatiba guztien ondoan, nik geure-geureak sentitzen ditut hamaika azpeitiak hauek. Herriaren alde patxadan eta bide baketsuan lanean ari diren gehienak baino neureago sentitzen ditut hamaika azpeitiak hauek. Konpromiso politikoa alderdiarekiko zerbitzuekin nahasten dutenak baino neureago. Euren poltsikoetarako negozio ederrak eginez herriarentzat aberastasuna sortzen dutela diotenak baino neureago. Gure herriaren tradizioak akritikoki gordetzen saiatzen direnak baino neureago.

Eta neureak ditudalako, zuenak bihurtu nahi ditut, haien izenak ipiniz lerro hauen amaieran. Hauek dituzue hamaika azpeitiak handi: Artola, Paterra, Pakea, Etxarte, Kafe, Jabi, Xegu, Joxin, Txapi, Gotzon eta Maider.



www.uztarria.com

Azpeitiko datu-base paregabea dago www.uztarria.com-en, eta bilaketak egiteko modu erraza

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerria (Azpeitia).
Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria:
 www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 2.000 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



• **LIBURUA:** 2003ko abenduaren 6an aurkeztu zuen Uztarria Kultur Koordinadorak Imanol Eliasek egindako *Azpeitiko efemerideak* liburua.

• **WEBGUNEAN:** Liburua argitaratu ahala webgunean jarri zen osoz. Eta egunean eguneko efemerideak webguneko lehen orriari agertzen dira.

• **DATU-BASEA:** 5.309 efemeride daude bilduta liburuan, eta webgunean sartuta daude denak. Hemen bilaketa egin daiteke.

• **BILAKETA:** Oso modu errazean

eta azkarrean egiten da bilaketa webgunean; gainera, hitz bat baino gehiago bilatzeko aukera ematen du.

• **NOLA EGIN BILAKETA?** Hitzen hasiera bakarrik bilatzen da; hau da, "tren" bilatu nahi bada, "tren, trenaren, treneko, trenak..." deklinatutako hitz guztiak aurkituko ditu. Baina "treneko" bilatzen bada, hitz hori bakarrik agertzen diren efemerideak bakarrik aurkituko ditu. Horregatik, bilatu nahi den hitz egokia aukeratzea komeni da.

albiste txikiyek

'Azpeitiko efemerideak', ondo saltzen

Azpeitiko efemerideak liburua martxa onean ari da saltzen. Herriko gune batzuetan dago salgai: Eklipse kultur dendan, Iratzar, Martinez eta Belaetxe liburutegietan, eta Uztarriaren lokalean. Liburuak 12 euro balio du, baina Uztarriako bazkideek 6 eurotan eros dezakete.

Uztarria buzoitik ez harrapatu!

Oraindik ere Uztarriako zenbait bazkide eta harpideren buzoietatik falta izaten da Uztarria aldizkaria. Ez bidaltzen ez zaielako, buzoitik besteren batek harrapatzen dielako baizik. Uztarria doan jaso daiteke, eta horretarako 943 150358 telefonoan izena eta helbidea eman behar da. Bazkide egiteko aukera ere badago, urtean 24 euro ordainduta, era horretan Uztarriako proiektuak lagunduz (2004an 112.000 euroko aurrekontua du).

757 bazkide gara dagoeneko; mertz den!

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 24 euro (aldizkaria, liburuak, 'Literatuzta') / Bestela egin harpidedun (aldizkaria soilik; kontuarena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

KODE POSTALA:

TELEFONO(A)K:

POSTA ELEKTRONIKOA:

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):

Julian Elorza Hiribidea, 4, 1.a ezkerria • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

‘Urola-Kostako Hitza’-ren proiektua handia da, hainbat eta hainbat atal dauzka, eta normala da herritarren artean orain galderak sortzea. Uztarria saiatu da erantzun batzuk ematen

hitza

PARE BAT

HITZETAN

Uztarria

Laster sortuko da *Hitza*, eta normala da herritarrek galdera asko izatea. Horra batzuk, eta erantzunak (azkenekoan izan ezik...).

Noiz sortuko da ‘Hitza’



Otsailaren 20an irtengo du *Hitza*-ren 1. zenbakiak (*Egunkaria*-ren itxieraren lehen urteurrenean). Handik aurrera egunero, astelehenetan izan ezik. Zortzi orrialdekoa. Aurkezpen-festa, berri, bezperan, 19an egingo da, Zarautzen, 20:00etan, Zinema Frontoian. Azpeitiar guztiak gonbidatuta daude. Uztarriak datozen egunetan emango du aurkezpen-festa horri buruzko xehetasun gehiago www.uztarria.com-en.

Aurkeztu noiz herrian



Urola-Kostako Hitza-ren sustatzaileek ekin diote eskualdeko herrietan proiektua aurkezteari, eta Azpeitian otsailaren 10ean egingo da aurkezpen

hori, Aitonena I-en, 19:30ean. Uztarria hasi da herriko ikastetxe, talde, elkarte, enpresa eta abarri egun horretarako gonbitea pasatzen. Irekia izango da.

Egunero nola banatuko da



Hitza-ren sortzaileek apustu handia egingo dute egunkaria-ren banaketan. Jendea oraindik ez dago ohituta kioskora, okidengira edo dena delakora joan eta euskarazko egunkaria hartzen. Hori dela eta, *Hitza* etxeraino banatuko da, egunero buzoian utziz. Baserrietara eta oso gertu ez dauden auzo txikietara (Oñatz, Nuarbe...) baliteke okinen bidez banatzea; bestela, banaketa izugarri garestitzen da.

Zeinek jasoko du



Hitza sortu eta aurreneko egun batzuetan azpeitiar den-denek jasoko dute egunkaria. Baina lehen egun horietan *Hitza*-k harpide kanpaina egingo du, eta harpidedun egiteko telefono zenbaki batera deitu beharko da. Dena dela, Uz-



Urtarrilaren 17an banatu zen Urola-Kostako Hitza

tarriako bazkideek (757) eta harpidedunek (1.150) ez dute izenik eman beharko, Uztarriak egingo dituelako *Hitza*-ko harpidedun (*Hitza*-ren enpresako kideetakoa da Uztarria). ‘h’ pegatina jasoko dute, buzoian jartzeko. Horietako batek egunkaria jaso nahi ez badu, dei dezala Uztarriara.

Zer tirada herrian



Herrian egunero *Hitza*-ren 2.300 ale bana daitezke. Kontuan hartu behar da hasieratik bertatik dagoeneko 1.900 harpidedun izango dituela (Uztarriako bazkideak eta harpidedunak).

GUREA DA HITZA ETA ERABAKIA

Uztarriak 1998ko apirilaren 4an egin zuen jendaurreko aurkezpen-jaialdian hauxe zioen idatzian: “Atxagak, *Behi euskaldun baten memoriak* liburuan dio ez dagoela behi makala baino makalagorik. Ez

dakigu Atxagak zer ote dioen azpeitiarroi buruz, baina, orokorrean ezagutuko bagintu, seguru esango lukeela behi makalen antz handia dugula Euskara eta Kultur arloetan. Hau da: zaila izango dela, bi ar-

lo haietan, azpeitiarrok baino euskaldun makalagorik aurkitzea. (...) Lan mundua, zerbitzu mundua, komunikabideen mundua eta gizarteko beste hainbat arlo aurrera doaz, abiada bizian aurrera joan ere. Gure herria atzean geratzen ari da [euskara, kultura eta komunikazioa arloetan]. Makalak izan gara. Baina hemendik aurrera ez dugu makalak izan behar. Hemendik aurrera ezin dugu trena ziztu bizian aurretik pasatzen ari zaion behia bezala gelditu. Mugitu beharra dago, parte hartu beharra dago, elkarlana bilatu beharra dago, betiere Azpeitiaren, eta azken batean Euskal Herriaren mesederako izango baita”.

Sei urte pasatu dira, eta Uztarriaren ustez, euskara, kultura eta komunikazioa arloetan gaur ez gara hain makalak. Aurretik egin zen eta geroztik denon artean egin den lanari esker, pauso handiak eman ditugu. Eta handienetakoa orain dator: *Urola-Kostako Hitza*. Egunkari horrek urratsak sendo eta azkar egin ditzan, jaialdi hartako esaldibat aipatu behar berriro: “Hemendik aurrera ezin dugu trena ziztu bizian aurretik pasatzen ari zaion behia bezala gelditu. Mugitu beharra dago, parte hartu beharra dago, elkarlana bilatu beharra dago, betiere Azpeitiaren, eta azken batean Euskal Herriaren mesederako izango baita”. Gurea da hitza... eta erabakia.



Erabakia eskualde osoan. Argazkian, azpeitiar batzuk euskarazko egunkaria irakurtzen.

Egunero 2.300 alerekin, bera izango da herrian gehien banatuko den egunkaria; gaur egun *El Diario Vasco* da, egunero 1.300 alerekin. Euskarazko zein komunikabidek lor dezake hori?

Azpeitiak zenbat orri

Normalean, gutxienez orrialde bat egunero. Urola barruko herrien artean hiru orrialde beteko dira (Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Aizarnazabal, Errezil, Beizama), eta hor Azpeitia izanik herririk handiena, presentzia handia edukiko du. Denetik emateko aukera, beraz.

Eragileek parte, nola

Hitza-ren enpresak hiru zutabe ditu: euskara elkarteak (%45), Bertako Hedabideak (%35) eta gizarte eragileak (%20). Hauek enpresan parte hartzeko, kultur elkarteak sortu da, eta elkarte horretan egoteko eragile bakoitzak, behin, gutxienez 150 euroko partaidetza erosi behar du. Lehen harremanen ondoren, Azpeititik Lagun Onak Mendi Bazkuna, Karmelo Etxegarai Azpeitiko Ikastola, Ikasberri Azpeitiko Ikastola eta Urola Ikastola daude; enpresa, sindikatu, talde, elkarte... denek izango dute aukera parte izateko.

Doan izango al da

Nahi duenak jasoko du. Baina autofinantziazioan gora egiteko (631.000 euroko aurrekontua), aukera bat da uda ostean harpidedunei, urtean 285 aldiz euskarazko egunkaria etxean jasotzeagatik, 40 euroko borondatekoa eskatzea.

Udalak ondo lagunduko al du diruz...

BESTEEN ESPERIENTZI INTERESGARRIA

Hiru 'Hitza' daude (Tolosaldean, Oarsoaldean, eta Lea-Artibai eta Mutrikun), eta Uztarriak hiruretako zuzendariak bildu ditu; esperientzi "ona" daukate

I. Mendizabal

Urola-Kostako aurreneko euskarazko egunkaria izango da *Hitza*, baina dagoeneko horrelako hiru egunkari daude Euskal Herrian: Tolosaldean (2001-12-18tik; hasieran *Egunero* zen, eta *Egunkaria*-ren itxierarekin *Hitza* sortu zen), Oarsoaldean (2003-06-24), eta Lea-Artibai eta Mutrikun (2003-11-11). Hirurek ere "oso harrera ona" izan dute herritarren artean,; hala kontatu diote Uztarriari behintzat hiru zuzendariak.

"Tolosaldekoa izanik proiektuko aurrena, ez zen hasiera erraza izan, lan egiteko moduan dena berria zelako: ezagutza eman, publizitatea, informazioa lortu, zorion agurrak... Baina jendeak oso harrera ona eman zion eta gustura hartu zuen. Gaur egun 7.500 ale banatzen ditugu egunero", dio Joxemi Saizar, *Tolosaldeko Hitza*-ko zuzendariak. "Oarsoaldean, berriz, 5.000 harpidetunetik gora ditugu dagoeneko, eta harpidetza egin nahi duten herritarren eskariak ez du etenik", dio Arantxa Iraola, *Oarsoaldeko Hitza*-ko zuzendariak (azpeitiarra du ama: Mari Karmen Alkorta, *Xumaia* familia-koa). "Lea-Artibai eta Mutrikun ere oso harrera ona. Hasi eta berehala konturatu ginen zelako oihartzuna hartzen hasi zen. Umeen erreakzioa horren lekuko, kazetari- ren bat zerbaiten gainean idaztera joan eta argazkiak ateratzen hasi orduko '*Hitza*-koa, *Hitza*-koa!' hasten zirenean", esan du Lore Bengoetxea, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*-ko zuzendariak.

Herri informazioaren prentsan eta euskaraz esperientzia berriak dira *Hitza*-renak (Hernanin ere bada egunkari bat, bi orrialdekoa: *Kronika*), eta hiru zuzendariak diote beharra zegoela horrelako produktua sortzeko. "Oarsoaldea oso eskualde bizia da, baina, hein handi batean, zatitua, hainbat lubakitan sakabanatua. Alde horretatik, herriko elkarte eta eragileek elkarren berri izateko tresna aparta da egunerokoa. Zer esanik ez, informazio emate hori, gainera, euskaraz egitea oso garrantzitsua da. Batetik, euskaraz irakurtzeko ohitura, oro har, oso

ahula delako oraindik euskaldunen artean. Gehienek, erdarazko hedabideetara jotzen dute. *Hitza* eskura izateak, ordea, ate berri bat ireki die", dio Iraolak.

ERREFERENTZIALA. Saizarrek esaten duenez, euskarazko egunkariak "informazioaren erreferentzialtasunean pauso handia" eman du: "*Tolosaldeko Hitza* da erreferentzia eskualdean. Gure egunkarian eskualdeari buruz kaleratzen den informazio bolumena ez da beste inon kaleratzen. Horregatik Tolosaldeko gizarte eragileentzat garrantzitsua da *Hitza*-n agertzea: informazioa, iritziak, publizitatea...". Besteak beste, "kazetaritza bizia" egiten dutelako, Iraolak uste duenez: "Hemen, herriko kontuen berri izateko, hilabetekariak zeuden orain arte eskura, edo egunkari jakin batzuek argitaratzen dituzten albiste solteak. Orain egunkari bat dute egunero kalean, zortzi orrialdekoa, euskaraz. Eta kazetaritza bizia egiten saiatzen gara: erreportajeak, elkarrizketak, kronikak... Albisteak bertatik bertara kontatzeko ahalegina egiten dugu. Eta jendeak benetan eskertzen du hori".

Lea-Artibain dagoeneko uxatu dituzte beldurak. Bengoetxea: "Hasieran, denok bertigoaren antzeko zeozer sentitu genuen, eta uste dut gauza bera pasatuko zela gainerakoetan, baina behin hasita ikusi da gurea bezalako eskualde txikietan ere bada goela zer kontatu, eta jendeak beharrezkoa ikusten duela. Bakoitzari berri batzuk beste batzuk baino gehiago interesatzen zaizkion arren, denentzako lekua dago. Albiste batzuen inguruan esan izan digute, adibidez, konturatzen direla *Hitza*-n agertu izan ez balira ez zituztela sekula jakingo".

Herri bakoitza ez ezik (Tolosaldean 28 herri dituzte, Oarsoaldean 4, eta Lea-Artibai eta Mutrikun 12; Urola-Kostan 11), eskualdea ere "uztartzen" laguntzen du *Hitza*-k, "informazio asko ematen duelako, eta, gure ustez, kalitatez eta pluraltasunez".

Eta euskaraz. "Ekarpen nagusietakoa euskararen normalizazioan eman dela iruditzen zait —dio Saizarrek—. Egunero es-



Hitza egunkarietako lau zuzendariak, Andoainen, Martin Ugalde Kultur Parkean, norbera bere *Hitza* duela. Ezkerretik hasita: Joxemi Saizar (Tolosaldeko), Arantxa Iraola (Oarsoaldeko), Lore Bengoetxea (Lea-Artibai eta Mutrikuko) eta Gari Berasaluze (Urola-Kosta).

kualdeko 7.500 etxetan euskaraz irakurtzea aurrerapauso handia da. Orain arte herri aldizkariak lan handia egin dute, baina gure eskualdean sekula ez genuen euskarazko irakurle kopuru hori lortu. Eta egunero, gainera". Iraola: "Oarsoaldean euskararen presentzia oso urria da, %25 gara euskaldunak, baina euskara ikasten ari diren haur, gazte eta helduak oso ugariak. Horientzat ere tresna egokia da *Hitza*; eta bat egin dute egunerokoarekin. Maiz etortzen zaizkigu, esaterako, guraso erdaldunak beren umeentzako zorion agurrak jartzera, ez

Gari Berasaluze

‘Urola-Kostako Hitza’-ren zuzendaria

“Inguruko berri geure hizkuntzan jasoko dugu, eta hori oinarritzakoa da”



Hitzalditik hitzaldira dabil Gari Berasaluze zarautzarra, eskualdean *Urola-Kostako Hitza* egunkaria aurkezten, bera izango baita zuzendaria.

● Zergatik sartu zara proiektu honetan?

Dudarik gabe, eskualdea euskalduntzeko proiektu garrantzitsuak iruditzen zaidalako. Lehenaldiz izango dugu Urola-Kostako biztanleok gure herrietan sortzen diren albistei buruzko informazioa prentsan egunero eta gure hizkuntzan jasotzeko aukera. Uste ez badugu ere, horrek, gure eguneroko bizitza eta irakurtzeko ohiturak aldatu egingo ditu, eta ohorea da horrelako lan batean aritzea.

● Editore bezala ibili zara azken lau urteetan; orain kazetaritza saltoa. Alde handia al da? Aurretik, non eta nola aritu izan zara kazetaritzan?

Egia esan, lehendik ere zerbait ezagutzen dut kazetaritza mundua. *Egin* egunkarian Zarauzko kronikagile aritu nintzen hainbat hilabetez, egunkari hura itxi zuten arte. Irratigintzan ere aritu naiz Herri Irratian eta *Egin Irratian*. *Egunkaria*-n, be-

rriz, asteburuetako literatura gehigarria kudeatzen nuen, eta gazteen *Barkatu Ama* gehigarriko *Azken Portuko Taberna* atalaren ardura izan nuen sasoi batean. Gero, Txalaparta argitaletxean editore lanean hasi ondoren, zutabegile moduan aritu naiz, *Gara*-n eta *Berria*-n. Aldea? Kazetaritza askoz bizkorragoa da, ‘eroagoa’, baina gustukoa izanez gero kateatu egiten zaitu lanak. Gustura itzuli naiz berriro prentsa idatzira.

● Urola-Kostan zergatik behar da bertako euskarazko egunkaria?

Nik behintzat ezin dut imajinatu italierazko egunkaririk gabeko Italiarik. Zergatik

“Gure eguneroko bizitza eta irakurtzeko ohiturak aldatu egingo ditu egunkari honek”

“Egunero kalitateko egunkari plurala egitea lortuta, eskualdeko erreferente izango da”

iruditzen behar zaigu normalean euskarazko egunkaririk gabeko Euskal Herria? *Urola-Kostako Hitza*-ren bitartez, inguruko berri gure hizkuntzan jasoko dugu, besterik gabe. Baina hain oinarritzakoa dirudien hori ez genuen orain arte.

● Uste al duzu *Hitza*-k ondo funtziona dezakeela eskualdean?

Ez dugu inolako zalantzarik. Biztanleen %76 inguru euskalduna da Urola-Kostan. Gure helburua lortzen badugu —egunero kalitateko egunkari plurala argitaratzea—, laster lor dezakagu *Hitza* gure herrietan eta etxeetan erreferente bihurtzea. Egin beharreko lana ondo egitearekin nahikoa dugu: batetik, irakurleek nahi dutena eskaintzeko eta, bestetik, irakurle berriak sortzen hasteko.

● Egunkaria itxi zutenean, mugimendu handia egon zen eskualdean...

Eta seinale ona da. Nabarmena da eguneroko prentsa euskaraz irakurtzeko gogoia duen eskualdea dela gurea. Horregatik, gogo eta behar horren arabera egituratu eta plazaratuko dugu *Urola-Kostako Hitza*.

dute guk kontatzen dugun guztia ulertzen, baina beraientzat ez gara arrotzak...; hori oso garrantzitsua da”.

“**ARRAKASTA**”. Kazetariak egunero daude harremanetan jendearekin eta, jakina, anekdota ugari dute kontatzeko. Saizar: “Orendaingo baserritar batek gure kazetariari esandakoa: ‘Lehen senarra eta biok gosalduta eta ikulura joaten ginen lanera. Orain, *Hitza* dagoenetik, gosalduta eta *Hitza* irakurtzen gelditzen naiz eta gero joaten naiz”. Iraola: “Hasieran, batez ere hainbat


erdalduni, arrotza eta arraroa egiten zitzaien; zer eta egunero Oarsoaldeko egunkaria etxera euskaraz! Behin emakume batek telefonoz hotsegin zuen erredakziora, ea periodiko ‘klandestino’ ote ginen galde-tuz...”. Bengoetxea: “*Hitza* sortu eta berehala, markinar bat erredakziora etorri zitzaigun eta armonikarekin bertoko neskei saioa eskaini zigun”.

Eta orain *Urola-Kostako Hitza*. Laugarrena. Iraolak dio “arrakasta handia” izan dezakeela, “eskualde bizia delako, eta oso euskalduna. Ekarpene handia egingo du”. ●



ALDAKETAK UZTARRIAN.

Nerea Uranga Uztarriako kazetaria eta Jon Aranburu www.uztarria.com-eko arduraduna *Hitza*-ra pasatu dira (ezkerreko biak dira), eta haien ordeztu ihintza Agirretxe (kazetari) eta Kepa Urbietta (webgunean) hasiko dira.



Musikene Goi-Mailako musika ikastegian Kepa Junkera eta Unai Frantzesena ikastaroan lanean. / UZTARRIA

FRANTZESENA, JUNKERAREN IKASLE

Gurasoen eraginez ikasten hasi, aitaren eraginez perkusioari heldu, orain musika du lanbide, eta bi urtez Kepa Junkeraren proiektu batean dihardu Unai Frantzesenak

Kepa Urbietza

Gaztea zenean hasi zen musikari buruz interesatzen Unai Frantzesena. Aita musikaria izanda —Jose Luis Frantzesenaren seme zaharrena da Unai—, gertutik sentitu du beti doinuen mundua. Lehen pausoak etxean zuen pianoa jotzen eman zituen. Hamabost urte zituela, perkusioa ikasten hasi zen eta denboraldi batez, biak batera ikasten jardun zuen. Azkenik, perkusio erritmoen harira ekitea erabaki eta gaur arte bide horri jarraitu dio. Egun, Unai Frantzesena perkusio irakaslea da, trikitiaren inguruan sortu den proiektu batean ikasle bezala dabil eta laster kontzertuak ematen hasiko da talde berri batekin. Beraz, musika munduari lotuta antolatua du bizitza.

Hemezortzi urte zituela jarri omen zen ordura arte zer egin zuen aztertzen eta horren harira hartu zuen musikari jarraitze-

“Junkerarekin lan egitea oso esperientzia ona da; lan talde handia du inguruan eta horrek gauzak asko errazten ditu”

Unai Frantzesena (musikaria)

ko erabakia. Hasieran pianoari ekin zion eta aitortzen du etxean gurasoek sartzen zioten “presioei esker” ikasi zuela, ez zuelako ikastea gogoko. Azkenik, “urteen poderioz” hasi zitzaion zaletasuna sortzen. Perkusioan “aitaren eragina” jaso zuela dio; egun batez, aita musikari eskolatik xilofonoa eraman omen zuen etxera eta hura probatuz batera erraza iruditu omen zitzaion. Aitak ikasten hasteko proposatu zion eta horrela hasi zen. Perkusioa pianoa baino gogokoago zuela konturatu zen eta horretan segitzea erabaki zuen.

Hainbat musika taldeko partaide izan zen; Mesias Berriak, Tau Ceti eta Sinaculum Virginitatis herriko taldeetan hasi zen. Azken horrekin maketa bat ateratzeko aukera izan zuen, baina azkenean taldea desegin egin zen. “Garai haietan helburua ongi pasatu eta kontzertuak ematea zen”. Gerora Oiartzungo reggae talde batean sartu zen eta Donostian urte batez antolatu zen musika lehiaketa batean irabazle suertatu ziren. Eta Iratxo berbena taldean ibili zen azkenekoz.

KEPA JUNKERAREKIN. Orain Kepa Junkerak eskuartearen darabiltkien proiektu berrian parte hartuko du. Junkerak trikitiarekin zerikusia duen eta aurtengo urtean amaituko den bi urteko kurtso bat antolatu zuen, Musikene Goi-Mailako musika Ikastegiaren bitartez. Frantzesenak bertan



Unai Frantzesena, Musiken txalaparta jotzen. / UZTARRIA

dihardu ikasketak egiten eta bertako beste ikasle batzuekin batera txalaparta instrumentu nagusia izango den proiektu batean parte hartuko du. Gogotsu dago lan berri horri ekiteko eta talde polita osatzen dutela uste du: “Trikitilariak daude, hizkuntza musikalik ez duen jendea dago; azken batean, amagama zabal bat da eta hori moldatzeak lan asko eskatzen du, baina gogo badago gustura ibiltzen zara jende berriz inguratuta”.

Hamar bat lagunek osatuko dute taldea, nahiz eta oraindik sei-zazpik parte hartzen duten. Ez dakiena da Kepa Junkerak berak parte hartuko ote duen lan horretan. Dena dela, Unai gustura dabil aukera berri horren aurrean, “Junkerarekin lan egitea

oso esperientzia ona delako. Lan talde profesional handia du inguruan eta horrek gauzak asko errazten ditu. Lan honek bere fruitua izango duen ziurtasuna ematen dizu”. Orain arte lasai ibili badira ere, laster hasiko omen dira gogor lanean eta, bide batez, Kepa Junkeraren exijentzia maila ezagutzeko aukera izango omen du. “Oso exijentea da hura; edo ondo egiten da lan edo ez da egiten”.


Musikazale azpeitiar honek, beraz, bidea eginez gogoko duena egitea lortu du. Orain, datorren bi urterako proiektu berriarekiko konpromisoa hartu du eta ez daki hortik haratago zer egingo duen. Oso garbi duena da musikako lanerako gogo handiz dagoela. ●



Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97





Martin Arakistain, Indian.

INDIAN MISIO LANETAN.

Martin Arakistain (ezkerrean) eta Jose Luis Lopetegi (eskuinean) misio lanetan ari dira Indian. Biak Gujaraten daude. Arakistainek eskola berriak egiteko lehen lanak egiten ditu, eta Lopetegi eskola eta parroki lanetan dabil.



Jose Luis Lopetegi, Indian.

50 URTEAN INDIAN

Martin Arakistain eta Jose Luis Lopetegi azpeitiarrak dira, eta 50 urte daramatzate Indian; Azpeitian izan berri dira, bisitan

Ihntza Agirretxe

Urruti dago India, bai, eta hori ongi dakite Azpeitiko zenbait senidek. Mapara begiratu eta segundo erdi batean ikus daiteke, baina leihora irten eta irudimenean soilik ikusten dute lurralde hura. Familia horietako kideak dira Elena Albizuri, Ignacio Bereziartua, Martin Arakistain eta Jose Luis Lopetegi; laurak azpeitiarrak. Albizuri Meghalayan dago, Bereziartua Depiapadan, Arakistain Sevasin eta Lopetegi Anklao Khedan; laurak Indian. Uztarria azken bi horiekin egon da Azpeitian; izan ere, gabonak familiakoekin pasatzekotan etorrita ziren herrira eta Uztariara bisita egin zuten Indian daramaten bizitzaren berri emateko. Aldizkariaren zenbaki hau kalean denerako Indiara bueltan izango dira biak.

Urte hauetan guztietan Indian baina herrialdean barrena mugitzen ibili dira, ez dira leku batean bakarrik egon. Gaur egun Gujarat estatuan daude —Indiaren mendebaldean, Bonbayrekin mugan—, Bereziartua beste azpeitiarrarekin batera. Hirurak ere josulagunak dira eta misio lanetan daude han.

Martin Arakistain

“Hasieran, Indiara heldu eta ezin ulertu hura oso gogorra izan zen”

“Orain 54 urte joan nintzen Indiara. Loiolan ikasten nengoela boluntarioak eskatu zituzten eta joatea erabaki nuen. Zazpi azpeitiar joan ginen eta hiru baino ez gara geratzen han.

Indian daramaten urte hauetan ez naiz beti toki berean egon. Hasieran, unibertsitatera joan nintzen eta 10-11 urte egin nituen han. Orain, berriz, Sevasin bizi naiz, beste lau indiarrekin batera.

Indiara iritsi ginenean jendea oso pobrea zen, txaboletan bizi zen eta baratzetan egiten zuten lan, diru pixka baten trukean. Tokia oso zikina zen eta arratoi asko zeuden. Egutero 7-8 arratoi hil behar izaten genituen gure txabolan. Gaur egoera hobean dago; etxeak hobeto eginda daude, ez dira txabolak. Orain, eskola profesional baterako eraikina bukatzen ari gara,

Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin egin dugu. Nik ez dut dagoeneko eskola horretan lan egiten. Lehenengo lanak aurrera eramaten lagundu dut eta eskola horretako egoitzan bizi naiz. Eskolan, mekanika, informatika... irakasten ditugu, eta guztira 1.010 ikasle inguru daude.

Eskolan Gujaratez irakasten dugu. Baina badaukagu gela bat 27 ikasleekin eta hauei ingelesez irakasten diegu. Garrantzitsua da ingelesez jakitea, makinak eta ingelesez programatuta etortzen baitira.

Hara iritisi ginenean ez genekien ez ingelesez, ezta bertako hizkuntzan ere, baina kanpotarrak ginen eta beti hala ez izateko ikasi egin behar zen. Gujarata ikastea hasieran oso zaila izan zen, baina gazteak ginen eta dena errazagoa da gaztetan. Baina hasierako ezin ulertu hura oso gogorra izan zen.

Han oso garrantzitsua izan da guk egin dugun lana, hangoei hezkuntza eman diegulako. Lehen oso pobreak ziren eta ez zuten irtenbiderik. Askok aldatu da egoera; orain ez da hain pobrea eta, gainera, bertako gazteek ikasteko aukera dute.

Orain arte leku batzuetan neskak ez zituzten bidaltzen eskolara, eta 13-14 urterekin



Martin Arakistain, Azpeitian.

HERRIRA BISITAN.

Martin Arakistain (ezkerrean) eta Jose Luis Lopetegi (eskuinean) herrira, Azpeitira, hilabete batzuk pasatzera etorri dira, gabonak familian pasatzeko. Orain lehen baino bisita gehiago egiten dituzte herrira. Biak Uztarrian izan genituen.



Jose Luis Lopetegi, Azpeitian.

ez-kontzen zituzten. Familia ere aldatu egin da, ordea; lehen 8-9 ume inguru izaten zituen familia bakoitzak, eta orain normalena 3-4 ume izatea da.

Martxan dugun proiektu berria, teologia-ko azken lau urteak ikasteko seminario bat da. Apaiz izateko azkeneko lau urteak egin ahal izango dira”.

Jose Luis Lopetegi

“Indiako gobernuak ematen dizkigu diru laguntzak, baina berak nahi bezala”

“Otsailaren hasieran 55 urte izango dira Indiara joan nintzena. Txinara joan behar nuen baina jende gehiegi ginen eta bi talde

egin zituzten: gipuzkoarrak eta nafarrak Indiara bidali gintuzten, eta besteak Txinara.

Eskolaren batera joateko asmoz joan nintzen baina lan gehien parroketan egin dut. Orain nagoen parrokiak, inguruko 25 herri-tan egiten du lan. Lan gehien, pobre edo beheko kastakoekin egiten dugu.

Mutilentzako eskola bat dugu eta ehun ikasle ditugu han bizitzen, eta Jesus Marietako mojek beste ehun neskato dituzte. Lehen hezkuntzako ikasketak ematen dizkiegu eta gero gure beste eskola batzuetara bidaltzen ditugu. Neskei josten, bordatzen eta maisu izateko erakusten diegu.

Gobernuak ematen dizkigu diru laguntzak eskolentzako baina berak nahi duen moduan. Ditugun zortzi irakasleetatik lauri bakarrik ordaintzen diete. Besteentzako nire poltsikotik jarri behar izaten dut dirua. Horretarako, hemengo lagun eta familiakoek

laguntzen didate, dirua bidaliz eta eskola-ko ume batzuk apadrinatuta. Guri ere hara iristen zaigun diru guztia banatu egiten dugu.

Hasieran estudiantzera joan nintzen eta han egin nintzen apaiz. Parroketan egin dut lan. Orain ez naiz ni parrokoa, indiar gazte bat da; dena prestatuta utzi nion bera sartzera eta orain lagundu egiten diot.

Hasieran bakarrik bizi nintzen eta oso zaila egin zitzaidan, 30 herriren ardura nuen eta bizikleta bat besterik ez. Goizean abiatzen nintzen herri batera, iritsi, eginbeharrekoak egin eta bertan gelditzen nintzen lotan, hurrengo egunean beste herri batera joateko.

Gobernuak (hindu erradikalak) askotan pentsatu du gu handik bidaltzea baina ez zaio komeni. Guk ez dugu kargurik eta, gainera, mundu osoan zabalduko zen albistea, eta ez, ez zaio komeni”.



DONOSTIA - ANTIGUON

ATIKO
POLITA
SALGAI

Tel.: 629534094



ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

datue

1.500

baz-
kide ditu Aitonena eta sei la-
gunek osatzen dute zuzen-
daritza batzordea. Orain gu-
txi berri du zuzendaritza;
lehen zeuden hiruren lekua
beste hiruk hartu dute.

dato historikue

360

urte pasatu
dira uholdeek (1644) Barre-
nola burdinolako presa deu-
seztu eta Enparan errotako
presa kaltetu zutenetik.

esaldiye

“ Hizkuntza bat
ez da maitatzeko egina.
Baliatzeko baizik”

Amets Arzallus
(bertsolaria)

liburutik ttak

“1933an oinarrizko ia 2.500
eskola zeuden Euskal Herri
guztian 2.800 maisu-maistra-
rekin; honek maisu bat supo-
satzen zuen 440 biztanleko.
Errepublikaren eskolatze la-
nak, hein handi batean, hel-
burutzat eduki zuen, une ho-
rretara arte erlijiosoek buru-
turiko irakaskuntza ordezkata-
zea. Izan ere, garrantzi han-
dikoa zen Euskal Herrian, bai
kolegio kopuruari dagokio-
nez (Gipuzkoan populazio
eskolarraren %35 zentru erli-
jiosoetan matrikulatua zego-
en), eta bai eragin sozialari
dagokionez. Kongregazio Er-
lijiosoan Legea onartu zene-
an, kolegio hauek beren atea-
k itxi behar izan zituzten
(...)”.

Santiago de Pablo. ‘Euskal He-
rriko II. Errepublika eta Gerra
Zibila: eguneroko bizitza’. Gero
argitaletxea. 1995. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



JUAN ANTXIETA LEHIAKETAREN 25. EDIZIOA

Gipuzkoa Donostia Kutzak, 1979ko otsaile-
an Antxieta etxea kultur ekintzetarako ire-
ki zuen eta arduradun bezala argazki lehiake-
ta bat antolatzea otu zitzaidan. Baina ohiko
lehiaketen desberdina: erreportaje girokoa eta
protagonista nagusia Azpeitiaren historian
agertzen zen zezena zela, gaur egun aparteko
egunetan kaleratzen den sokamuturra. Ez
dago esan beharrik nolako zailtasunak dituen
gaiak argazkilarientzat: mugimenduan da ze-
zena, jendearen ihesa gutxien uste denean,
eguraldia... Argazkilaria makina prestatzeko
erosotasunik gabe, toki egokienak aukeratu
nahian une onenak jasotzeko. Zailtasunak aur-
kitu behar eta bai horrela egin ere.

Lehen lehiaketa 1980. urteko San Sebastian
egunean egin zen, baina gero Inauterietan;
argazkilariek hiru egunez aukera gehiago izan-

nik. 25. edizioa ospatuko da aurten eta esan,
Kutzak antolatutako ekintza honek egin duen
bide luzean, sekulako zerikusia duela Azpei-
tiko Argazki Elkarteak, horko kideak izan dire-
lako urteetan partaide nagusi. Haien ausardia
izan da oinarria, urtea joan eta etorri. Kanpoko
argazkilariak ere izan dira eta, gainera, noiz-
bait sariak ere lortu dituzte; baina Elkartekoek
erakutsi dute mailarik handiena, dudarik gabe.

Lehiaketara aurkeztutako argazkiekin osatu-
tako erakusketak izan dira beti Antxietan ikus-
le gehien izan dutenak. Baina lehiaketaren ur-
te horietan lortu den gauzarik garrantzitsuen-
a, sokamuturrari buruzko sekulako altxorra da,
urtero egin diren erakusketetan aurkeztu diren
argazkiez gain, beste asko eta asko gelditu
direlako argazkilarien esku edo ezkutuan,
herriaren historia zati bat jasoz. Orain garran-

garai bateko Azpeitiye ...Sabin Arrizabalagak kontatua

Inauteri aurreko egunak

Hilabete motza izan arren, herrian gaur egun baino
ospakizun gehiago izaten ziren lehen otsailean zehar

Aintze Oruesagasti

Esaerak dio: “Otsail hotza, neguaren biho-
tza”. Egutegira begiratu eta 29 eguneko
hilabetea ikus daiteke aurtengoan. Hala ere,
gustura egon behar, hil honen bukaeran inau-
teriak baitira. Festa ederra izaten da herrian.
Gure aitona-amonon garaian ere izaten omen
ziren inauteri festak; hori kontatu dio behintzat
Sabin Arrizabalagak Uztarriari.

Txikiteo Elegantean eta astelehen inauterian
makina bat jende ibiltzen da herriko kaleetan,
mozorrotuta. “Buruhandiak ibiltzen ziren kalee-
tan, baina orain janzteko dagoen afanik ez zen
gure garaian. Gogo bai baina beste era bate-
ko giroa izaten genuen”, dio Arrizabalagak.
Betidanik jai giroa gustuko izan duela dio,
baina lehen dirurik ez omen zen izaten horre-
tarako.

Hala ere, otsailean bada inauterien aurreko
ospakizunik ere. Hilabete hasieran, otsailaren

2an Kandelari egunez, kandelak bedeinkatze-
ra joateko ohitura zen lehen. “Gaur jende gutxi
joaten da elizara, baina ni umea nintzela amo-
narekin joaten nintzen kandelak piloa eskuan
hartuta bedeinkatzera. Hurrengo egunean,
otsailaren 3an, San Blas egunean ere ogia be-
deinkatzera joaten ginen mezataria”, gogora-
tzen du Arrizabalagak.

Bi egun beranduago, berriz, Santa Ageda
eguna da. “Santa Eskean Nuarben ibilia naiz
gaztetan. Orduan gauez joaten ginen soinujo-
leekin eta bertsolariekin. Baserritarrez jantzita,
Nuarben hasi eta Matxinbentan bukatzen ge-
nuen. Guztira hamalau-hamabost bat baserri
pasatzen genituen, eta behin Matxinbentara
iritsita, erromeria ederra izaten zen bertan.
Gaur egun auzokoak bakarrik biltzen dira”.

Gau osoan eskean ibili ostean izaten omen
zen irabazirik. “Dirua biltzen genuen, gero afari
edo bazkariren bat egiteko. Zenbait baserritan
jateko pixka bat eta ardoa ere ematen ziguten



Sokamuturra, plazan. / JUAN JOXE AGIRRE

● ARGAZKI ELKARTEKOAK.

Sokamuturrari buruzko Argazki

Lehiaketan Azpeitiko Argazki Elkarteko

kideek erakutsi dute mailarik handiena

tzi handiegia ez duena seguruenik, baina urteak igaro ahala garrantzia izango dutenak.

Kutxaren nahia datorren urtean sarituak izan diren lan guztiekin erakusketa berezia egitea da. Eta dei berri bat egina da, otsailaren 22, 23 eta 24rako.



Talde bat Santa Eskean. / KAITO

“ Santa Eskean
Nuarben ibilitakoa naiz,
gauzez soinu-joleekin
eta bertsolariekin”

Sabin Arrizabalaga



eta gu gustura aritzen ginen kantuan”. Jende asko ibiltzen omen zen Santa Eskean, haren hitzetan. “Ohitura handia zegoen. Gu baserriz baserri ibiltzen ginen baina kalean ere jendea ibiltzen zen eskean. Hala ere, lehen gaur baino jende heldu gehiago ibiltzen zen”.

TRISTEA. Jai giroa eta parranda gustuko izanda, gogoan du Aste Santuak pasatu arte ez zela festarik izaten. “Aste Santua pasatu bitartean ezin izaten genuen festarik egin. Garizuma garaian musika entzutea debekatu zegoen eta dantza egitea ere bai. Tabernetan kartatan jokatzeko ere galarazita zegoen. Orduan dena bekaturik zen. Ostiraletan, bijilia eginez, arraina jaten genuen. Egun tristeak izaten ziren. Kalean ez zen inor ibiltzen, dena itxita egoten zelako. Elizako kontuak pisu handia zuen. Gaur gauzak aldatu egin dira”.

abizena

ZABALA

● Armarria.

Zilarrean, arrano baten irudia eta berdean, urrezko bost izar.



● Abizenaren kokapena.

- Azpeitia.
- Bilbo.
- Portugalete.
- Durango.
- Elorrio.
- Zamudio.
- Dima.
- Elgoibar.
- Azkoitia.
- Tolosa.

● Abizenaren hedapena.

- Azpeitia (1650, 1767).
- Bilbo (1694, 1803).
- Elorrio (1575, 1680).
- Tolosa (1687, 1838).
- Asteasu (1668)
- Ordizia (1722, 1730).
- Villabona (1722, 1730).
- Eibar (1641, 1648).
- Berastegi (1725)
- Zarautz (1716).
- Amezketa (1409).
- Hondarribia (1676).
- Azkoitia (1607)
- Donostia (1745).

‘www.paisvasco.com/heraldica. webgunetik hartua.

komunikabidiek

CAROD-ROVIRAREN KASUA

Josep Lluís Carod-Rovira, ERCKo burua ETAREkin bildu zen, *Abc*-k argitaratu (egia zen behintzat), *DV*-k eta *ederki* zabaldu xehetasunekin (*Abc*-ren anaia da *DV*) eta egundokoa sortu da. Imajinatzen *Abc* eta konpainia ez balira ez Katalunian eta ez Euskal Herrian egunkari eraginkorrak?

gertuko pasadizue

ASTOAREKIN TXIKITEOAN

● **JOXIN BELOKI:** "Patxi Tobera, Jesus Azpitarte, Jesus Astigarraga, Pako Xatur, Iñaki Lizaso, Bernardo Goenaga, ni neu eta akaso beste koadrilaren bat ezik, ez zen inor mozo-rrutzen. 1955ean hasi ginen. Orduan Aizpurrutxotik etortzen zen ogizalea karro eta asto-arekin. Karroa Mendizaletako parean lotzen zuen eta bere osabaren etxera joaten zen gosaltzera, ihauteriak zirela eta zerbait egiteko-tan ginen. Karroa asto eta guzti ikustean as-toa karrotik askatzeko ideia zoragarria izan genuen eta gurekin ibili genuen txikiteoan".

'Azpeitiko Jaiak' liburutik hartua. Txakel-ek argitaratua. 2000. urtea.



Belokiren lagunak.

kontsumue

SAKELEKO TELEFONOA, NOLAKOA?

"Sakelako telefonoa eroste-rakoan hainbat ezaugarri kontuan hartu behar dira:

● **Bateria.** Litziozkoek gehiago irauten dute: 280 ordu.

● **Antena.** Telefono batetik bestera ez dago alde handirik, baina bai enpresa desberdinen artean.

● **Mantenua.** Urarekin eta kolpeekin kontuz ibili behar da; eta txukun mantenduz, bi urte inguru irauten dute".

Sarea Informatika Zerbitzuak

osasune Julian Bereziartua (medikua)


ERREUMAREKIN BORROKAN ARTEAREN BITARTEZ

● **MINA.**
Erreumak
organo
gehienei
eragiten
die

Ehun aldakaitik gora ditu erreumatismoak; giza-organo gehienei eragiten die, baina batez ere lokomozio-aparatuari. Artikulazioen handidura da ezaugarri nagusia. Defentsek ondo funtzionatzen ez dutelako sortzen dira.

Gota eta osteoporosisaren jatorria metabolismoan dago. Erreumak sendatu eta hobetu egiten dira. Garraiz egindako diagnosi eta tratamenduak funtsezkoak dira elbarrikotasuna saihesteko. Sintoma nagusia mina da, eta ondoren, gogortzea eta itxuragabetzea.

Osteoporosisari "azken mende honetako izurritea" deitu arren, nire ustez, gogorrena 'arthritis erreumati-

koa' da; mekanismo auto-erasotzaileak eragiten du, eta gorputz osora zabaltzen da. Deigarrienak giharren atrofia eta artikulazioen deformazioak dira.

Adibide hunkigarriena Auguste Renoir margolariarena da; azken urteak gupil-aulkian pasatu zituen eta pintzelei hatzekin heldzerik ez zuenez, bere eskuari lotuarazten zuen. Bizi-pozaren eta adoreaaren eredia zen, minak eta zailtasunak gaingitzen jakin zuelako.

Ez dugu kokildu behar erreumatismoaren aurrean, tratamenduekin asko aurreratu baitaitake. Eta ez dezagun sorginkerietan sinetsi, kobrezko pultsera edo poltsikoan baratzuri burua emanez.

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelestegia- English School


- HAURRENTZAKO KLASA BEREZIAK
- IKASTALDE TXIKIAK
- ORDENAGAILUZ ETA BIDEOZ LAGUNDUTAKO IRAKASKUNTZA
- INGELESEZKO LIBURUTEGI ETA BIDEOTEKA
- AZTERKETARAKO PRESTAKETAK. HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA, CAMBRIDGE, TOEFL

HELDUENTZAT 0-TIK HASITAKO TALDEAK

ZATOZTE!!!

Foru Ibilbidea, 7-1 ez.

Tel.: 943 81 65 03



ARTE ETA DISEINU
IKASTEGIA

- > Talla19:30/21:00
- > Pintura (helduak)..... 17:30/19:00
- > Marrazketa eta eskulanak (haurrak)17:30/19:00

Astelehenetik ostegunera

Julian Elorza 4 - 1
943 - 81 28 08

AMALUP
lorazaintza

- Lorategien proiektuak
- Zuhaisken kimaketa
- Lorategi eta zelaien mantenua
- Belar landaketa eta tepe, egur, harri edo txilar jartzea

943-025319 (Azkoitia)
679106753(mugikorra)



Ondo pasatu festak!



AZPEITIKO UDALA



GIZARTE GAIAK IKERTZEKO KABINETEA

KONTSULTA PSIKOLOGIKOA
LAGUNTZA AKADEMIKOA
LOGOPEDIA

- Familientzako aholkularitza
- Ikastetxeentzako trebakuntza
- Herri mailako proiektuak



Haur, gazte eta helduentzako trataera pertsonalak


Diziplina anitzeko taldea:

- PSIKOLOGOA
- PSIKOLOGO KLINIKOA
- PSIKOPEDAGOGOIA
- PEDAGOGOIA
- LOGOPEDA
- GIZARTE HEZITZAILEA

urtarrietik IREKITA

Jandonianiz 5, behea - Tel.943 02 64 35 / Faxe: 943 02 57 93 - 20720 AZKOITIA

Bi egunkari bakar batean



...eta gainera



Mantangorri:
Larunbatetan
16 orrialdeko gehigarri koloretsua
haur eta gaztetxoentzat



Igandea:
Asteko albisteak
patxadaz aztertzeo aukera.



Internet:
Edizio jarraitua,
webgune tematikoak
eta eztabaidaguneak

telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK -

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria herri aldizkaria	15 03 58
Urola-Kostako Hitza (Azp.)	81 38 41
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943-30 40 30
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
Habea	943-15 72 00 (138)
EA	81 00 11

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyek
gauzez

OTSAILAK 5-13-25

Beristain. 81 19 49

OTSAILAK 6-9-14-15-26

Etxebeste. 81 59 74

OTSAILAK 7-8-11-23-28-29

Zulaika. 15 03 34

OTSAILAK 10-27

Garcia. 81 12 74

OTSAILAK 12-24

Aranburu. 81 13 50

OTSAILAK 16-17

Azpiazu (Azkoitia). 85 29 89

OTSAILAK 18-19-20

Jaen (Azkoitia). 85 06 60

gune
publikuek
irikite

UDALETXEA

Astegunak: 9:00-13:30

Larunbatak: 9:00-13:00

IXPIXIOA

Egun osoz irekita

IGERILEKUA

Astelehenak: 14:00-21:00

Beste astegunak: 7:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Kanpoko igerilekua: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

Astelehenak: 9:00-13:00, 15:00-21:00

Beste astegunak: 15:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiak

JOATEKO

AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA

Astegunak: 6:50 (1), 7:40 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:40, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15

Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-ELGOIBAR-EIBAR

Astegunak: 6:50, 13:50, 15:50, 19:50, 21:50

Larunbatak: 8:50, 15:50, 19:50, 21:50, 0:30, 2:30, 4:30

Igandeak eta jaiegunak: 8:50, 19:50, 21:50

Enpresa: Eusko Tren

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:35, 13:30

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkartea

AZPEITIA-AZKOITIA

Astegunak: 6:55, 7:25, 8:25, 9:25, 10:25, 11:25, 12:25, 13:25, 14:25, 15:25, 16:25, 17:25, 18:25, 19:25, 20:25, 21:25, 22:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:55, 8:55, 10:55, 11:55, 13:55, 14:55, 16:55, 18:55, 19:55, 21:55

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10, 21:50

Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 12:25, 13:25, 15:25, 16:25, 18:25, 20:25, 21:25, 22:20

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10

Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:55, 8:55, 10:55, 11:55, 13:55, 14:55, 16:55, 18:55, 19:55, 21:55

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA

Astegunak: 6:55, 15:10

Asteburuak eta jaiegunak: 6:55, 11:10

Enpresa: EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK

Aldalur	85 27 18	Bizkaibus (Eibar-Bilbo)	902 22 22 65
EuskoTren	15 06 77	Piper Unibertsitate Elkartea	85 25 87
La Guipuzcoana	85 11 59	Taxiak	81 13 07

ITZULTZEKO

DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

EIBAR-ELGOIBAR-AZPEITIA

Astegunak: 8:00, 15:10, 17:10, 21:10

Larunbatak: 10:10, 17:10, 21:10, 1:30, 3:30, 5:30

Igandeak eta jaiegunak: 10:10, 21:10

Enpresa: Eusko Tren

LEIOA-BILBO-AZPEITIA

Astegunak: 14:00, 20:00

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkartea

AZKOITIA-AZPEITIA

Astegunak: 7:00, 8:05, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 21:40

Asteburuak eta jaiegunak: 7:15, 9:15, 10:15, 12:15, 13:15, 15:15, 16:15, 18:15, 20:15, 21:15, 22:10

Enpresa: EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:30, 8:30, 10:30, 11:30, 13:30 (2), 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 21:30

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45

Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00

Enpresa: EuskoTren

ZUMARRAGA (hospitela)-AZPEITIA

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30

Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 12:45, 14:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45

Enpresa: EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA

Astegunak: 9:30, 18:30

Asteburuak eta jaiegunak: 9:30, 12:00


Enpresa: EuskoTren


argazkilaiye: Iñaki Uranga

Zezenak kamioira sartu arteko lana

● **ORDUBETEKO PROZESUA.** Nola sartzen dituzte sokamuturreko zezenak kamioira? Lan erraza ote?... Herriar gehienek Uztarriaren lan honen bidez eza-gutuko dute hori (urtarrilaren 18an egina). Ordubete pasatzen dute sei zezen kamioira sartzen.

● **22 URTEAN AZPEITIRA.** Arno ganadutegiak 22 urte daramatza Azpeitira sokamuturrera etortzen. Agustin Mugerza, Jose Mari Arriola, Andoni Mugerza, Jon Osa... ibili dira edo dabilta ardura horrekin. Ehunen bat buru dituzte (Mutrikun, Olatzen).





1. APARTALEKUAN.

12:00ak dira eta zezenak apartalekuan (lehenago larreran edukitzen dituzte), eta Andoni Mugerza haiek torilera pasatzeko lanean.

2. TORILERA.





Apartalekutik torilera eramaten dituzte, bakoitza bere txokora. Argazkian, Jon Osa atera irekitzen.



3. KAMIOIA PRESTATZEN.

Andoni eta Jon —lehengusuak biak— zezenez enkaratu ziren bitartean, baserriko beste kide batzuk kamioia prestatzen aritu ziren, zerrautsa botatz eta.

4. LOTZEN.

Andoni eta Jon, zezenak lotzen torilean, gero enbolatuak jartzeko. Lanik konplikatuena agian horixe.





5. ENBOLATUAK.

Segurtasun gisa, zezenek larruzko enbolatuak izaten dituzte; puntan, goma. Toriletan jartzen dizkiete. Aurpegia estali egiten diete.

6. KAMIOIRA.

Zezenak kamioira eramateko garaia. Banan-banan, sokatik helduta, pasabide estutik. Kamioiaren aldameneko ate batetik sartzen dituzte. 13:00ak dira.

7. AZPEITIAN.

Bazkaldu eta Azpeitira, 16:30eko sokamuturrera. Argazkian, kamioia herri iristen, 16:10ean.



ZAHARRA DAGO AZPEITIA

BETIKOA.

Marka duk
gero...

Batzuk esatez
nazkatuak,
eta besteak,
entzuteaz

aldatu egingo dira. Behin, nioen zaharra zegoela Azpeitia, eta bera pentsatzen jarraitzen dut. Zer esango ote lukete XVII. mendeko emakume haiek?

Inor ez dadila hatzaz seinalatua sentitu, ez el-karte, ez gizon ez eta emakume ere. Bakoitzak daki zer egiten duen, zer egin nahi duen eta zer egin behar duen. Kontzientziari dei egitea baino ez zai-gu geratzen, hemen nik esanak aspaldi eta askotan esanak baitira. Beraz, 'sin novedad'.

Baina badago zerbait atseginezko sorpresa sortu didana igarotako festa hauetan. Kaito Telebistan ikusi dut, haurrek ikastetxeetako atarietan egindako danborradetan, nola mutiko batzuk animatu diren kantinero eta banderadun. "Hauek bai ausartak", pentsatu nuen. (Denborarekin eta gu guztioi esker, galduko duten ausardia seguruenere ere.) Horrela bada, eta bata bestea kentzen ez duen arren, behin berrogei urte eta gero pertsona aldatuko ez dela esaten denez, umeengan jarri behar itxaropena. Gu, zahartzen hari garela onartu eta txikiei eman behar bultzadaxo bat; bultzadaxoa eta ez eragina.

Arestian esan bezala, badator martxoaren 8a. Bakarren batzuek ospatuko dute, eta beste bakarren batzuek beti berdinari bueltaka dabiltzala esango dute. Zertaz garen kexu, beti garela kexu... Duela hilabete gutxi bota dute adiskide bat lanetik amatasun baja zela eta... 'sin novedad'.

Hara, nik egia esango dizuet: esan nahi nituenak esan ditut, bai, eta gustura geratu naiz ba! Aukera ematen didate horretarako eta probetu ateratzen jakin behar! (Datorren sansebastianetarako ondo gordeko dut idatzia. Litekeena da berriro erabili behar izatea).



Duela gutxi jakin dut, XVII. mendea arte, emakumeek ezin izaten zutela antzerki lanetan parte hartu. Emakumezkoen pape-rak ere gizonezkoak betetzen zituzten, eta emaku-meak ikusle papera baino ez zuen betetzen.

Herrian, pasatu berri dira 2004ko sansebastianak, (azpeitiarron benetako festa dela diote) eta laster etorriko da, urteroko legez, martxoaren 8a.

XVII. mendetik gaur egun arte aldatu dira gauzak, eta eskerrak! Baina pausoak zein poliki ematen ditugun ikusita, jakin nahiko nuke, hiru mende ba-rru, zer esango duten XXI. mendeko Azpeitiari bu-ruz. (Errebindikazioez leporaino bazaude, ez jarrai-tu irakurtzen, eztarria ere gogortuko zaizu eta).

Uztarriaren webguneko iritzi batzuk irakurtzeko aukera izan dut emakumea eta sansebastianak direla eta; alegia, emakume danborjolearen pape-rari dagokionez, eta, denetik ikusi dut: presentzia eskasia salatzen dutenak, arazorik ikusten ez dute-nak, emakumeak onartzen ez dituzten taldeak, Udalaren partetik zigortuak izatearenak... Oraindik, hautsak harrotzen dituen gaia beraz, eta hala bada, zerbait badagoen seinale.

Egia da, gero eta talde gehiagok onartzen dituz-tela emakume danborjoleak. Besterik ez genuen behar! Baina, danborra jotzeko gogoz geratzen di-renak ere asko dira. Esaterako, San Sebastian egunez, hala esan zidan adiskide batek: "Sekulako inbidia ematen dit danborra jotzeak, baina Alaitz, ezin. Gure gurasoen elkarteak ez baititu oraindik emakumeak onartzen". Eta datorren urtean, gauza bera pentsatuko du, eta hurrengoan, eta hurrengo-an. Gutxienez, eta oker ez banago, badaude bi elkarte oraindik emakume danborjoleak onartzen ez dituztenak. Batzuek elkarteaz kanpoko jendea onartzen dute, bertako alabak kanpoan utziz. Ulertezina egiten zait, benetan, ulertezina.

Batek esaten zuen, sozioek baino ez dutela parte hartzen zenbait taldetan, eta emakume soziorik ez bada, nola aterako diren bada danborra jotzen. Konforme. Batetik, zergatik ez dago emakume so-ziorik? (Ironiarik gabe. Galdera bat baino ez da). Bestetik, seguru nago semeak hartuko duela gero aitaren tokia. (Agian ez...).

Badakit beti gauza beraren bueltan ibiltzea asper-garria dela eta nazkatu egiten duela. Baina, batzuen nazkamenerako, honek errealitatea izaten jarraitzen du eta gizarte garatu bat izatetik urrun jarraitzen dugulakoan nago. Ohiturak aldatzeko eginak daude, eta batzuek nahi ez badute ere,

As. At. Az. Os. Os. La. Ig.

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	

OTSAILAK 7 (larunbata)

• ARETO FUTBOLA.

Lehen Maila: Jostaldi-La Be-
lloa. 16:30ean. Kiroldegian.

OTSAILAK 8 (igandea)

• MUSIKA.

V. Organo Erromantikoaren
Ziklo Internazionala Azkoitia-
Bergara-Azpeitia. Organoa
jotzen Roberto Antonello ita-
liarra ariko da. 20:00etan.
Loiolako basilikan.

• MENDIA.

Gurutzebarrira (1.117 metro)
egun guztirako mendi irteera.
Lagun Onak Mendi Bazkunak
antolatuta. Irteera plazatik
izango da.

OTSAILAK 9 (astelehena)

• ERAKUSKETA.

2003ko Santo Tomasetako
argazki lehiaketako argaz-
kien erakusketa. Otsailaren
27a arte irekita egongo da.
Astegunetan 18:00etatik
20:00etara arteko ordute-
gian. Antxieta etxean.

• PALA.

Herriko II. Pala Txapelketan
izena emateko azken eguna.
Ikasberri Pilota Elkartek an-
tolatuta. Izena emateko le-

otsailak 14 (larunbata) • 22:30 • Kalean



KALDEREROEN KONPARTSA. Azken urte-
etan ohi bezala karnabalen aurreko asteburuan kaldereroen kon-
partsak irtengo da. Aurten ere Ardozaleak Elkartek eta Udaleko
Festa Batzordeak antolatu du eta, gainera, antolaketa Udaleko
Gazteria sailaren laguntza izan du. Arana kaletik 22:30ean ate-
rako dira eta kalez kale ibiliko.

kuak Orkatz eta Zuhatz taber-
nak eta Ikasberri Azpeitiko
Ikastola dira.

OTSAILAK 10 (asteartea)

• 'HITZA'-REN AURKEZPENA.

Urola-Kostako Hitza euska-
razko egunkariaren aurkez-
pena egingo da. 19:30ean.
Aitonena I-en.

OTSAILAK 13 (ostirala)

• MUSIKA.

V. Organo Erromantikoaren
Ziklo Internazionala Azkoitia-
Bergara-Azpeitia. Organoa
jotzen Daniel Oiarzabal eta
kantari, David Azurza zuzen-
dari dela, Lausardi Koru Sin-
fonikoa. 20:00etan. Loiolako
basilikan.

OTSAILAK 14 (larunbata)

• HAUR PARKEA.

Haur parkea. 16:30ean. Pla-
zan.

• KALDEREROAK.

Ardozaleak Elkartek, Udal
Musika Bandak eta Udaleko
Festa Batzordeak antolatuta.
22:30ean.

• KONTZERTUA.

Berri Txarrak musika taldea-
ren kontzertua. Plazan.
00:00etan.

OTSAILAK 15 (igandea)

• MENDIA.

Aralarrera gaztetxoentzako
egun guztirako mendi irteera.
Lagun Onak Mendi Bazkunak
antolatuta. Autobusa 08:30-
ean izango da plazan.

• KONTZERTUA.

Udal Musika Bandaren
karnabaletako kontzertua.
13:00etan. Plazan.

OTSAILAK 16 (astelehena)

• PALA.

Herriko II. Pala Txapelketa
hasiko da. Ikasberri Pilota El-
kartek antolatuta. 19:00-
etan. Betharrametako pilota-
lekuan.

OTSAILAK 17 (asteartea)

• KARTEL LEHIAKETA.

Urola-Kostako Emakume Tal-
deak martxoak 8rako kartel
lehiaketa antolatu du. Eta kar-
telak aurkezteko azken egu-

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

K

CONSTRUCCIONES

ANTZIBAR

FRAIKUNTZAK

kutxa

gizarte ekintza

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

na otsailaren 17a da. Gaia: *Emakumeon ekarpenak gizarteari* da. Estiloa libre da eta bi koloretan izan beharko da, lelo batekin. A-3 neurrian aurkeztu behar dira lanak. Kartelak, datu pertsonalak kartazal barruan sartuta eta lelo kartazalean idatzita, Azkoitiko Emakume Taldea, 139 postakutxa, 20.720 Azkoitia helbidera bidali behar dira. Saria 150 eurokoa izango da.

OTSAILAK 21 (larunbata)

● ARETO FUTBOLA.

Lehen Maila: Jostaldi kirolak-Zaldibi. 16:30ean. Kiroldegian.

● MANIFESTAZIOA.

Manifestazioa Azpeitiko Asakatasunak deituta. *Utzi bakean Azpeitian, utzi bakean Euskal Herrian* lelopean egingo da. Plazatik 19:00etan aterako da.

OTSAILAK 22 (igandea)

● DIANA.

Izarraitz Txistulari taldearen diana. 09:00etan.

● KROSA.

Krosa, maila desberdinetakoak. 10:00etatik aurrera.

● MUSIKA.

Udal Musika Banda eta Musika Eskolako haurrak. 11:00etan.

● SOKAMUTURRA.

Zezena. 12:00etan. Plazan. 12:30ak arte.

● ARTZAIN-NUDEAK.

Haurrentzako zinemaldia

● 'BUSCANDO A NEMO'.

Otsailaren 8an (igandea, 17:00). Soreasun.

● 'EL CID LA LEYENDA'.

Euskaraz. Otsailaren 15-ean (igandea, 17:00). Soreasun.

● 'LOS LOONEY TUNES'.

Otsailaren 29an (igandea, 17:00). Soreasun.

Itsasi dantza taldeko artzain-inudeen eta Juan Antxieta Musika Eskolaren kalejira kaleetan. 12:30ean.

● TXARANGA.

Nahidekena txaranga ibiliko da kaleetan. 12:30ean.

● MUSIKA.

Idiarena doinua joko dute Izarraitz Txistulari taldeak eta Udal Musika Bandak plaza Txikian. 16:15ean.

● ARGAZKILARITZA.

XXV. Kutxa Juan Antxieta Argazki lehiaketa izango da sokamuturraren inguruan.

● SOKAMUTURRA.

Zezena. 16:30etik 20:00ak arte. Herriko kaleetan.

● TXARANGA.

Bembe txaranga kalean zehar. 19:30ean.

OTSAILAK 23 (astelehena)

● GOIZ ERESIA.

Izarraitz Txistulari taldearen goiz eresia. 10:00etan.

● ZEZENAK ETA PONIAK.

Zezen txikiak eta poniak. Plazan. 10:30ean.

● MUSIKA.

Udal Musika Banda eta akademiako hurren kalejira. 11:00etan.

● DESFILEA.

Haur mozorrotuen desfilea, 4 Muñekote-k animatuta eta Udal Musika Banda eta Juan Antxieta Musika Eskolaren partaidetzarekin. 12:30ean.

● HAUR JOLASAK.

Haur jolasak. 16:00etan. Olazko Amaren Plazan.

● MUSIKA.

Idiarena doinua joko dute Izarraitz Txistulari taldeak eta Musika Bandak. 16:15ean.

● SOKAMUTURRA.

Zezena. Herriko kaleetan 16:30etik 20:00ak arte.

● TXARANGA.

Txotx txarangaren kalejira. 16:30ean.

● ARGAZKILARITZA.

XXV. Kutxa Juan Antxieta Argazki lehiaketa izango da sokamuturraren inguruan eta karnabaletako giro berezia egokien jasotzen duen argazkia ere saritua izango da.

● KARAOKEA.

Karaokea Egan taldearekin. 19:30ean. Plazan.

● KALEJIRA.

Musika Banda. 19:30ean.

● TTUNTURROAK.

Itsasi taldeko ttunturroak eta Tximeleta eta Los Pasai txarangen kalejira. 23:00etan.

● MOZORROAK.

Mozorro lehiaketaren sari banaketa. 01:30ean. Plazan.

OTSAILAK 24 (asteartea)

● MUSIKA.

Egan. Plazan. 02:30ean.

● MUSIKA.

Udal Musika Bandaren kalejira. 06:30ean.

● SOKAMUTURRA.

Zezena. 07:00etatik 09:30ak arte herriko kaleetan.

● TXARANGA.

Herriko Banda Gaztearen kalejira. 10:00etan.

● HAUR JOLASAK.

Haur jolasak. 16:00etan. Olazko Amaren Plazan.

● SOKAMUTURRA.

Zezena. 16:30etik 20:00ak arte. Kaleetan.

● ERREMONTEA.

Erremonteko artidak hasiko dira. 17:00etan. Izarraitz pilotalekuan.

● ZEZENAREN HILETA.

Zezenaren hileta. Herriko kaleetan. 20:00etan. Orduan bukatuko dira karnabalak.

Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerra (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com



ostadar optika

OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



EPELDE INMOBILIARIA

Goiko Kale, 1 - Behea
Tfona/Faxa: 943 15 03 31
20730 AZPEITIA



A.E.P.J. 20/46



Otamendi
Belxi Donde

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

Biele



BETIDANIKO
SUKALDARITZA

PARRILA. Arraina
eta haragia

BI JANGELA. 60 eta 25
pertsonentzako tokia

ON EGIN!

Pablo VI Auzunea, 16
Tel.: 943 81 20 40
20730 AZPEITIA



“Suhiltzaile lana beti iruditu izen zitek lan erakargarriye”

Mikel Luengo suhiltzailie da. Lehen irakasle bezela ibili zan. Diputaziyoko suhiltzaile postuek erten zebeñien aurkeztie erabaki zuen.

• Nolatan egin hintzean suhiltzaile?

Beti iruditu izen zitek lan erakargarriye. Nere izaeriekin bat zetorrek eta baita nere bizi baldintzekin ere.

• Lehen irakaslie hintzean. Aldaketa haundiye izen al da?

Bai, hala dek. Sei urte egon nauk irakasle bezela lanien eta gustora egon nituan. Bakarrik urtero toki diferentien egoten nintzela.

• Noiztik suhiltzaile?

Orain dala urtebetetik natxiok Azpeitiyen. Lehen Tolosan egon nituan praktikatan, hiru hilabetetan.

• Suhiltzailie izeteko proba gogorak pasatu beher izeten al dire?

Oposaketak oso luziek dituk, eta gauze asko ikutzen dizkik. Ezin dek inoiz esan “ja bale dek”. Ni urte eta erdi egon nauk oposaketekin. Gipuzkoko suhiltzaile proba fisikuek ez zizkitek hain gogorak iruditzen; Donostikuek-eta bai. Zazpi ofiziyoko probak egiten dituk teoriko eta praktiken artien. Proba hoiyetan erortzen dek jendie. Fisikuek ez dituk puntuatzen eta ez dituk hain gogorak, ezta errezak ere. Beste probak gogorraguek dituk, tentsiyo haundiye sortzen debelako.

• Eta lana bera gogorra al da?

Lanak bi alderdi zauzkek: parkien hagoanekue eta kanpokue. Parkekue, lan lasaiye dek: garbiketak, mantenimentue eta praktikak egiten dizkiagu. Kanpokue askotan sinplie izaten dek. Baino sireniek jotzen duenien ez dakik zer izengo dan eta tentsiye sortzen dik. Sutiek eta istripuek direnien gogorra dek, neke haundiye sortzen dik. Askotan gauze desagradablek ikusten dituk.

• Lehen suhiltzailetan bolutariyo bezela ibili al hintzean?

Ez. Oposaketak preparatzen ari nintzela, aukerie eduki nian suhiltzaile sartzeko interino bezela, baino ez nian nahi izen. Nahiyo nian-eta oposaketak kanpotik prestatu eta gero lanien hasi.

• Gertaera berezik-edo gertatu al zaik?

Behin, Oñatz ingurutik deitu ziabean kotxe bat barrankotik erori zala esanez. Ailegatu ginenien kotxie eta txoferra han zaudetan, eta kotxeko kriste-

“Suhiltzaile izeteko egin beher diren oposaketak oso luziek izeten dituk”

“Sutiek eta istripuek tokatzen direnien lana gogorra bihurtzen dek eta neke haundiye sortzen dik”

lak-eta dana osorik. Baino beste mutil bat kotxe kanpuen zagoan eta ez gini-an ulertzen nolatan zegoen han. Kotxekuei laguntzen hasi zuan baino trabatu eta erori egin zuan. Berak kolpe haundiyeuk zauzkean kotxeko txoferrak baino.

Ion Aranburu

TXIKITEKO AMETSA. “Suhiltzaile izetie ez zuan nere txikiteko ametsa. Nik txikiten futbolistie izetie nahi nian, ume danan antzera”

Zatoz ikastolara!



ikasberri
AZPETTIKO IKASTOLA

Ikastolen Elkartea

**nurtzaindegitik batxilergoraino
asko dugu emateko!**

943 15 12 46 ikasberri@ikastola.net

Bideo digitala
URBITARTE 4-BEHEA
TEL. 151287
20730 AZPEITIA



ondo pasatu karnabalak!

urke
ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAIK
Ezkontza, bataio, jaunartze
eta bestelako ospakizunak.



LAZKANO - OLAIZOLA
Aholkularitza Inmobiliarioa

BASERRIAK

ERREZILEN
LIZARTZAN
ALBISTURREN
ITZARREN
AIZARNAZABALEN
ETA ABAR

ETXEBIZITZAK SALGAI

Santiago kalea: 90m², 4 logela,
sukaldea jarrita, bainugela, egongela.
147.248€ (24.500.000 pztz)

Eliz kalea: Estreinu gabea, 63m²,
2 logela, sukaldea jarrita, 2 bainugela,
egongela. 180.304€ (30.000.000 pztz)

Foru ibilbidea: Azalera eta
distribuzio desberdinetakoak 171.300€
(28.501.921 pztz)-tik hasita.

Errezilen: Eraikuntza berria, 3-4 logela,
2 bainugela, egongela, sukaldea,
garaiea, bista zoragarria.

**LOKALAK SALGAI/ALOKAGAI
SALGAI**

Enparen kalea: 45m²,
54.091€ (9.000.000 pztz).

Damaso Azkue: azalera
eta prezio ezberdinetakoak.

Iberotarren plaza: azalera
eta prezio ezberdinetakoak.

ALOKAGAI

Enparen kalea: 43m²,
bulego batentzat oso egokia.

Idefonso Gurrutxaga: 69,5m².

Azkoitia: 110m².

PABILIOIAK


Urrestilla: 920m²ko azalera,
5 metroko altuera.

Urrestilla: 360m²ko azalera,
9 metroko altuera

Landetan: 300-600-900m²ko azalera
8 metroko altuera. Estreinu gabeak.

ESKaintza gehiagoren
berri nahi baduzu
zure zain gaude.

Santiago kalea, 10-12 • Tel.: 943 15 76 93 • Faxa: 943 15 76 94 • E-mail: lazcano-olaizola@euskalnet.net



*Kalitatea da
gure helburua*

**e
ederto**

Gipuzkoako Harakinen eta Urdaikarien Erosketa Taldea

HARATEGI ETA URDAITEGIAK

BARRENETXE HARATEGIA Goiko kale, 5
EDUARDO HARATEGIA Erdi kale s/n
ODRIOZOLA HARATEGIA Arana, 14

BELOKI HARATEGIA Jose Artetxe, 21
ZABALA HARATEGIA Arrabal, 8
SAN SEBASTIAN HARATEGIA Foru Ibilbidea, 4

MATXIN HARATEGIA Harzubia Iribidea, 26




"CRICON"





2004 NEGUKO MERKEALDIAK



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50

Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa

%50

merkealdiak

udaberriko arropen aurrerapena laster

Xanjuandei auzuen gatxauden!

Urbitate, 9 ♦ Tel. 943 151369

Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa